

# IKUSMIRAN

Euskal Herriko langileriaren  
lan eta bizi baldintzak

2020KO URRIA



# Ikusmiran

## Euska Herriko langileriaren lan eta bizi baldintzak 2020ko urria

### Aurkibidea

<b>ONDORIOAK</b> .....	<b>5</b>
<b>ENPLEGUAREN BILAKAERA</b> .....	<b>9</b>
Kolektibo kaltetuenak .....	9
Gizarte Segurantzako afiliazioa .....	11
<b>NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA ETA GATAZKAK</b> .....	<b>12</b>
EAE .....	12
Nafarroa Garaia .....	15
<b>SOLDATAK</b> .....	<b>17</b>
2018an soldatak Hego Euskal Herrian. Arrakalak. ....	17
Soldatetan arrakalen bilakaera azken hamarkadan. Hego Euskal Herria.....	20
<b>LAN OSASUNA</b> .....	<b>21</b>
Lan istripuak .....	21
Lan istripu hilgarriak .....	22
Laneko gaixotasunak.....	23
<b>ERRETIROA ETA ALARGUNTASUNA</b> .....	<b>23</b>
Alarguntasun pentsioak Hego Euskal Herrian.....	23
Erretiro pentsioak Hego Euskal Herrian.....	24
<b>POBREZIA</b> .....	<b>26</b>
Pobrezia arriskua .....	26
Biztanleen batez besteko errenta .....	28
Gabezia materiala duten pertsonak. Hego Euskal Herria .....	31
<b>ABERASTASUNAREN BANAKETA</b> .....	<b>32</b>
EAE .....	32
Nafarroa Garaia .....	32
BPG eta soldatak.....	34
<b>ETXEBIZITZA</b> .....	<b>35</b>
Etxebizitza parkea .....	36
Alokairuak hego euskal herrian .....	38
Etxebizitzen prezioak Hego Euskal Herrian .....	41
Etxegabetzeak.....	43



## ONDORIOAK

**K**risi ekonomiko sakona bizi dugu, baina bere ondorioak, berriz ere, nagusiki langileok pairatzen ditugu Estatu Espainoleko gobernuek 2010 eta 2013 urteen artean ezarritako erreformen bidez horretarako baldintza estrukturalak eta arauak ezarri zituztelako. Hau da, erreforma haiek kaleratzeen erraztea, enpresei malgutasuna ematea, prekarietatean sakontzea edota lan hitzarmenen babesa kaltetzea ezartzeaz gain eta 2008ko krisiari irtenbide neoliberala ematek harago, filosofia eta arau horiek betikotu zituzten. Halaber, pentsioen gastua murriztea helburu izan zuten pentsio erreformek, hurrengo urteetan erretiroa hartuko zuten langileei eragin zien. Oinarri neoliberal horien gainean krisiari eman nahi zaion erantzunak hiru zutabe nagusi argi marrazten ditu:

- Langileekiko diskurtso oldarkorra murrizketak (soldatan, eskubideetan, baldintzetan...) onar daitezten eta, halaber, neurri horien orokortzea.
- Enpresekiko eta enpresarietako diskurtso ulerkorra eta baliabideak zuzenean emateko bideak arakatzea, errekupeazio planen inbertsioa enpresa pribatuetara zuzenduz.
- Administrazio eta botere publikoen ahalik eta ahalegin txikiena krisi aurreko baliabideak handitzeko oinarrizko zerbitzuetan (irakaskuntzan, osasungintzan, zaharren egoitzetan...). Inoizko egoera berezienean, betiko baliabide eskasia eta prekarietatea, eta langileekiko presioa.

Datuak eskuartean, azken hamarkadan Euskal Herriko langileriaren lan eta bizi baldintzen egoerak okerrera egin duela baieztatu besterik ez dugu. Atal bakoitzean ikusiko duzuen bezala, bilakaera ez da erabat homogenea izan lan eta bizi baldintzei dagokionez. Baina oro har tendentzia esanguratsu batekin topo egin dugu: 2008 urtetik aurrera adierazle ia guztiek okerrera egin dute, kasu askotan 2015-2016 urteen inguruan behea jo eta hobekuntza apal bat erakutsiz urte horietatik aurrera.

Edonola ere, Nafarroa Garaia eta EAEn banaketa administratiboak eragina du. Izan ere, datuak konparagarriak diren kasuetan, ondorio desberdinak ateratu ditugu azterketa berdinetik: pobrezia eta bazterketa sozialaren tasaren kasuan, etxebizitzara bideratzen den soldata kopuruan edota herrialdeko aberastasun banaketarenean esaterako.

Atalez atal, honakoak dira ondorio nagusiak:

**Enplegua:** enpleguaren galera, berez kaltetuenak diren kolektiboetan izan da batik bat. LABek hamaika aldiz salatu du azken urteetan sortzen ari zen enplegua erabili eta botatzekoa zela, prekarioa, eta orain botatzeko garaia iritsi da. Galdu den enpleguaren zati handiena behin-behinekoa izan da, eta gainera, kolektibo ahulenetan egin du langabeziak gora: gazteetan eta Hego EH-ko eta Estatu Espainoletik kanpoko jatorria dutenetan, bereziki emakume migranteetan.

**Negoiazio kolektiboa eta lan-gatazkak:** Hitzarmen kolektibo batengatik, EAEn %80 baino altuagoa zen estaldura tasatik (2012) %60 baino baxuago izatera pasa zen bost urtetan. Dena den, greba deialdien eta langile borroken ugaritzeak EAE zein Nafarroa Garaian, hitzarmenen errekupeazio bat ekarri du azken urteetan. Hala ere, aipatu behar da hitzarmen estatalek garrantzia hartu dutela azken urteetan hitzarmen guztien %21a izatetik %27ra igoz, horrek oro har lan baldintzetan dakarren aldaketarekin, izan ere, lan harremanen estatalizazioak euskal langileen bizi eta lan baldintzak eskasten ditu eta pobretze objektiboa eragiten du. Kolpe gogorra izan zen negoziazio kolektiboarentzat 2011ko erreforma. Estatuko zein enpresako hitzarmenei lehentasuna ezarri eta aurrera-eragintasuna ezabatzeak besteak beste, batik bat herrialdeko hitzarmenetan oinarritzen zen Hego Euskal Herriko negoziazio kolektiboa kaltetu zuen. Eta egiturazko egoera horretan, krisi berri honen ondorioei erantzuteko baliabide gutxiago ditugu euskal langileok. Erreforma hori onartu (alderdi eta gobernuek) eta gogoz baliatzen duten enpresari, administrazio eta sindikatuak euskal langileen babesgabatasun horren erantzule dira objektiboki.

**Soldatak:** Azken hamar urtetan euskal langileen soldaten bilakaerak adierazle negatiboak ditu. Izan ere, soldata arrakalek igoera izan dute: pertzentil baxuenean kokatzen diren soldaten eta batezbestekoaren aldeko arrakala %17 hazi da, eta gazteen soldataren eta batezbestekoaren artekoak %102ko igoera onartezina izan du. Ikusten dugunez, lan erreformek eta ondoriozko prekarietatearen hedatzeak soldatetan eragin garrantzitsua izan dute. Kolektibo ahulenen kalterako izan da

bilakaera, izan ere, iraupen mugatuko kontratuetan mugagabeetan baino %30 baxuagoak dira soldatak, eta gazteenek bataz besteko soldataren erdia soilik jasotzen dute.

**Lan osasuna:** datu ofizialen arabera, azken urtean laneko istripuek goranzko joera izan dute %4,25 igoz, erdigunean langileen osasunaren bermea ezarri beharrean enpresen produktibitatea eta irabaziak jartzen diren seinale. Maiz, laneko gaixotasun eta istripuak datu ofizialetatik kanpo gertatzen dira, izan ere, egungo legediak enpresek mutualitateen ezinbesteko laguntzarekin datuak desitxuratzea errazten du. Ondorioz, esan dezakegu administrazioak lan merkatuko errealitatea ezkutatu eta ostrukarena egitea erabaki duela, laneko istripu eta gaixotasunak arrunt moduan ezkutatu, eta laneko prebentzio eta segurtasunera bideraturiko neurriek eskatzen duten diagnosiko erreal bati muzin eginez.

**Pentsioak:** azken hamarkadan pentsiodunen kopuruak nabarmen egin du gora Hego Euskal Herrian, eta gainera pentsio altuenen kopurua asko hazi da. Izan ere, azken hamarkadan erretiroa hartu duten belaunaldiko langile askok (gehienak gizonezkoak) negoziazio kolektibo indartsu baten ondorioz lan baldintza hobekatu zituzten. Baina pentsio eta lan erreformen ondorioz datozen urteetan pentsioen zenbatekoak behar bezala egingo duela aurreikusten dugu, pentsio erreformek helburu gisa pentsioen gastua murriztea izan dutelako pentsiodun kopurua igo arren batetik, eta lan erreformen ondorioz hedaturiko prekarietatearen ondorioz langileen kotizazio oinarriak ere jaisten ari direlako bestetik. Nolanahi ere, egungo pentsioen datuek pentsiodunen zati handi baten prekarietate egoera islatzen digute, erretiro pentsioen %40 eta alarguntasun pentsioen (%93 emakumezkoa) %70 1100 euroren azpitik kokatuz.

**Pobrezia:** azken hamarkadan pobrezia arriskuaren tasak gora behera batzuk izan dituen arren, 10 urteren ostean 2008an baino datu okerragoetan kokatzen gara, pobrezia eta bazterketa sozialaren arrisku tasa altuagoekin alegia. Azpimarratzekoa da EAEn emaniko igoera aipatu tasan, hamarkada batean %15,64 igo baita pobrezia eta bazterketa sozialaren arrisku tasa. 2008ko krisiaren ondorengo urteetan ezarritako politikak jendartearen prekarizazio eta pobretze orokorra ekarri zuten. Oinarriko beharrak ase ezin dituzten Euskal Herritarren kopuruak gora egin du. Gainera, egoera ahulenean dauden kolektiboek egin dute okerrera errentaren bilakaera aztertzen badugu, gazteen eta gainerako errenta arrakala handituz. Emakumeak ere kolektibo zaurgarrienean kokatzen dira, pobrezia arriskuan bizi diren gehiengoak izanik eta errenta gizonezkoek baino nabarmen apalagoa izanik.

**Aberastasunaren banaketa:** jendarte baten ongizatea neurtzeko batez besteko adierazleek ikuspegi partziala ematen digute, bazterrekoen egoera datu orokorretan urturik agertzen baitzaigu. Beraz, herrialde bateko aberastasunaren banaketaren nolakotasunak errealitatea aztertzeko elementu gehiago eskaintzen dizkigu.

Hego Euskal Herrian hamarkada batean aberastasunaren banaketak okerrera egin du, gehien eta gutxienean dutenen arteko aldea handituz. EAEn bilakaera azpimarratu nahi genuke batik bat, indize guztiek okerrera joera erakutsi baitigute, %6ko okertzea hain zuzen ere. Lan eta pentsio erreformek eta gobernuetatik eratorritako politika publiko guztiek langileriari bizkar eman diotela ikusi dugu, egoera zaurgarrienean daudenen kalteberatasuna handituz batetik eta aberastasuna esku pribatuetan neurririk gabe pilatuz bestetik.

Barne Produktu Gordina jendarte baten ongizatea neurtzeko adierazle egokia ez izan arren, interesgarria iruditu zaitu gaur egungo arau ekonomiko neoliberalen arabera soldatek zer nolako pisua duten ekonomian neurtzea. Urte urte soldatek ekonomian duten garrantzia galtzen ari dela baieztatu ahal izan dugu Hego Euskal Herria osoan.

**Etxebizitza:** etxebizitzari dagokionean, politika publikoen aldaketa beharra azpimarratu nahi genuke, izan ere, kezkatzeko errealitate bat erakutsi digu azterketak.

Euskal Herria osoan etxebizitza eskubidea eskubide subjektibo gisa onartua egon arren, etxebizitza eskubide efektibo bihurtzetik urrun dago oraindik eta ez da egon aldaketa nabarmenik etxebizitzaren sarbideari dagokionez. Gainera, egoera zaurgarrienean dauden herritarrek alokairuzko etxebizitzak lehenesten dituzte, eta alokairua da justuki administrazio publikoen politiken erdigunetik urrunen kokatzen dena. Izan ere, alokairu bidezkoak dira babes sozialeko etxebizitzaren eskaera gehienak, baina kontrara, eskaintzaren hondar bat soilik betetzen dute (Nafarroa Garaiko datuen arabera). Bestetik, etxebizitza gehienak alokairu bidezko etxebizitzak dira; datu honek, alokairuan bizi diren pertsonen egoera kaltebera agerian uzten du, baita administrazio publikoen etxebizitza politiken aldaketaren premia ere.

Etxebizitzara bideratzen den soldatari dagokionez, alokairuen prezioak Gazteen Euskal Behatokiak definituriko

gehienezko prezio onargarritik urrun daude, are gehiago emakumeen kasuan eta EAEn. Datu honek, eskubide subjektibo gisa onartua dagoen etxebizitzak luxuzko artikulu baten trataera duela erakusten digu, pertsona guztiok dugun oinarrizko beharrian moduan izan beharrean.

Bukatzeko, etxebizitza parkea aztertu dugu. Kasu honetan, Ipar eta Hegoaldeko banaketa administratiboak eragin nabarmena izan du. Izan ere, bigarren etxebizitzaren portzentajea Iparraldean Hegoaldean baino altuagoa da, Lapurdin metatuz mota horretako etxebizitza gehien. Datu honek, Iparraldeko kostaldeko turismo ereduaren inguruko errealitatera hurbildu gaitu, turismoa lan sektore nagusi gisa lehenetsi izanak ondorio tamalgarriak utzi baititu etxebizitzaren gaian. Hegoaldean aldiz, etxe hutsak dira arazo nagusia.

### Azterketari buruzko oharra:

2020ko Martxoaren erdialdean Euskal Herria osoan osasun-krisiaren ondorioz konfinamendu orokorra ezartzeak sistemaren egiturazko hainbat hutsune azaleratzea ekarri zuen, epe motzean biztanleriaren zati handi baten lan eta bizi baldintzak are eta gehiago okertuz. Egun, egoeraren ezezagortasuna mantentzen den honetan, pandemia hasi zenetik Euskal Herriko langileriaren lan eta bizi baldintzetan eman diren aldaketak neurtzea zaila zaigu. Martxotik hona, enpleguan gertaturiko bilakaera neurtu ahal izan dugu, ez ordea beste hainbat elementu.

Beraz, lan honek, pandemiaren ondorioak neurtzea baino, Euskal Herriko langileriak modu estrukturalan bizi duen egoera aztertzea izango du helburu gisa, azken hamarkadan emaniko bilakaera analizatuz era berean.

Horretarako, enplegu eta lan baldintzen bilakaera aztertu dugu batetik. Azken hamarkadan soldatek izan duten bilakaera, lan-hitzarmenen estaldura eta lan zentroetako gatazkak, lan osasuna edota langabeziaren igoera izan ditugu aztergai. Bestetik, enpleguari hain estuki loturik ez dauden eta euskaldunon bizi kalitatean erabateko eragina duten hainbat aldagai analizatu ditugu: sorturiko aberastasuna nola banatzen den, pobrezia arrisku tasa, etxebizitza eskubidea edota pentsioen bilakaera.

Jakin badakigu azterketa honetatik kanpo geratu direla langileriaren egoera osoaren argazkia emango lizkigukeen hainbat elementu. Azterketa honek, errealitate horretara gerturatuko gaituen ekarpen xume bat izan nahi du, hobetzeko eta osatzeko asko duela jakitun izanik.

## Metodologia

Iturri ofizialak erabili ditugu batik bat, Nafarroa Garaiko, EAEko, Estatu Espainoleko zein Europako estatistika institutuek emanikoak, baita erakunde zein fundazio desberdinek osaturiko txostenak ere. Datu bakoitzaren ondoan bere iturria topatuko duzu gaiak interesa sortu eta sakondu nahiko bazenu.

Etxebizitzaren alokairuen datuak lantzeko garaian Idelista webgunearenak ekarri ditugu, Hego Euskal Herri osoan iturri bera erabili ahal izateko batetik (Nafarroa Garaiko datu ofizialen faltan) eta bestetik, erakunde ofizialen txostenek ere datu horiek erabili ohi dituztelako etxebizitzaren gaia lantzeko garaian. Etxebizitzaren alokairu eta salmentetako prezioak soldatarekin alderatzeko garaian, soldata garbia erabiltzea erabaki dugu, modu horretan ulertu ahal izango dugulako herritarren benetako gastua etxebizitza bateko sarbidea eskuratzeko garaian, nahiz eta soldata garbi hori pertsona bakoitzaren errealitatearen arabera aldatzen izan. Soldata bakarra jasotzen duen eta seme-alabarik ez duen bizi-unitatearen arabera dira kalkulak.

Europako herrialde desberdinen batz bestekoein egin ditugu alderaketa urri batzuk, aberastasun banaketa neurtzen duen S80/S20 ratioa eta pobrezia eta bazterketa sozialaren tasa hain zuzen ere. Alderaketak egiteko garaian honakoa izan da irizpidea Estatu desberdinak aukeratzeko garaian: Europar Batasuneko batz bestekoa, Estatu Frantsesekoa eta Espainolekoa beti sartu ditugu eta besteak aldatzeko izan dira: datu hobereak eskaintzen dituzten bi Estatuak eta datu okerrenak eskaintzen dituen Estatu bakarra hautatu ditugu.

Oro har, ustez datu berdinak eskaintzen dizkiguten iturri desberdinek zenbaki desberdinak eskaintzen dituztela azpimarratu beharra daukagu. Beraz, atalez atal, iturriak aukeratzeko hautua egin behar izan dugu. Kasu batzutan, Nafarroa Garaiko pobrezia tasa kasu, bi iturriak jaso ditugu azterlanean. Beste kasu batzutan ordea, baten aldeko hautua egin dugu, normalean Hegoalde osorako iturri bakarra bilatuz alderaketak egin ahal izateko (adibidez Soldaten pisua Barne Produktu Gordinean aztertzeko garaian, S80/S20 ratioaren kasuan edota etxebizitzaren gaian)

## **Ezintasunak**

Gure helburua betetzeko garaian ordea, hainbat ezintasunekin topo egin dugu.

- Azterketa nazional bat egiteko zailtasuna. Hiru errealitate administratibo desberdinpean eta bi Estaturen administraziopean egoteak datuen homogeneotasuna kaltetzen du alde batetik, gai batzuetan iturri desberdinak erabili behar izanez eta euren arteko konparaketa zailduz. Bestetik, Ipar Euskal Herriko errealitatera hurbiltzeko datuen faltak azterketa nazionala egitea eragotzi du, analisia Hego Euskal Herrira mugatuz. Gainera, Hego Euskal Herrian ere, ezarri zaigun banaketa administratiboaren baitako azterketa egin behar izan dugu gai askotan, eta EAE eta Nafarroa Garaia artean banatu behar izan dugu analisia.

- Datu ofizialetan jasotzen ez den errealitatea. Txosten hau datu jakin batzuen gainean eraiki dugu, modu horretan hurbildu ahal izan gara Euskal Herriko langileriaren errealitatera. Datu horiek, estatistika institutu desberdinek zein erakunde edo elkarteek jasotako datu estatistikoak izan dira, euren datuetan edo inkesta zehatzetan oinarrituz. Beraz, kasu batzutan langileriaren zati bat azterketatik kanpo geratu da, ekonomia ezkutuan lan egiten dutenen errealitatea edota egoera administratibo irregularrean dauden langileak kasu, hertzean kokaturiko langileak kasu gehienetan.

- Administrazio publikoko langileak. Enpleguari loturiko gaietan administrazio publikoko langileak datu hauetatik at daudela azpimarratu behar dugu, eta euren esklusiboki eragiten dien datu konparagarriak ezin izan ditugula lortu (lan-hitzarmenei eta soldatei dagokionean).

- Generoa binarioa dela ontzat ematen duten datuen arabeko azterketa. Generoarena dugu azterketa errealitatearen erakusgarri zehatza izatea eragozten digun beste aldagaia. Emakume eta gizon gisa soilik hartuak gara estatistika ofizialetan, existitzen diren genero identitate guztiak aintzat hartu gabe. Oraingoan ere generoaren arabera bazterrean kokaturikoen errealitatea lausoturik geratu zaigu emakume eta gizon epigrafeen barnean.

- Azken datuak kasu gehienetan 2018koak dira. Beraz, atal askotan ez dugu azken bi urteetako bilakaera jasotzerik izan.



## ENPLEGUAREN BILAKAERA

Azken hilabeteak bereziki aldakorrek izaten ari dira enpleguaren bilakaerari dagokionean. Ziurgabetasunak bizitzako arlo guztiak bustitzen dituen honetan, enpleguaren eta ekonomiaren bilakaeraren ezjakintasunak Euskal Herri osoko langileen bizi baldintzetan eragin zuzena dauka.

Etorkizuna ziurgabetasunarekin lotzen badugu ere, azken hilabeteek utzi diguten argakia kezkarria eta latza da.

### Enpleguaren galera

Urteko bigarren hiruhilekoan, Hego Euskal Herrian suntsitutako lanpostuen saldo garbia 43.200 izan zen, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-% 3,6). Gainera, urte arteko datuak kontuan hartuz, 67.800 pertsona gutxiago daude lanean (-% 5,5).

#### Aldi baterako enplegua zigortuena

Bigarren hiruhileko honetan soldatapekoen kopurua 32.900 pertsonatan murriztu da, eta aldi baterako enplegua izan da kaltetuena. Zehazki, galdutako soldatako enpleguaren % 71 baino zertxobait gehiago aldi baterakoa zen, hau da, lehen hiruhilekoan baino 23.500 aldi baterako lanpostu gutxiago dago egun.

Koronabirusak eragindako ezohiko egoera honetan (konfinamendua, paralisi ekonomikoa eta ziurgabetasun handia), aldi baterako enpleguaren hauskortasuna eta haren ondorioak inoiz baino nabarmenagoak izan dira, eta milaka kontratu iraungi dira indarraldia amaitu eta berehala. Azken finean, hori da enpresentzako metodorik erosoena eta merkeena "plantilla doitzeko", inolako izapiderik egin behar izan gabe.

#### Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Txostenak

Gainera, enpleguak jasandako zarpailaz gain, kontuan hartu behar da Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Txostenen (EABET) erabilera masiboa. Gizarte Segurantzako Ministerioaren arabera, krisiaren unerik latzenetan (apirilaren amaieran), aldi baterako lan-erregulazioan zeuden 202.630 pertsonara iritsi ziren. Gaur egun, berriz, 30500 langile inguruk jarraitzen dute EABET egoeran iraila bukaerako datuen arabera, hau da, egoera hori bizi izan duten pertsonen % 15k.

### Kolektibo kaltetuenak

#### Gazteak

Adinaren arabera, nabarmentzekoa da gazteen langabezia-tasa % 31,6ra igo dela (aurreko hiruhilekoan baino hamar puntu gehiago), 25 urtetik beherako gazteen okupazioa 8.500 pertsonatan murriztu baita, hau da, aurreko hiruhilekoan baino % 16,7 gutxiago. Urte arteko datuei erreparatuz gero, gazteen okupazioa 16.000 pertsonatan murriztu da, hau da, % 27,4 gutxiago.

#### Emakumeak

Bestalde, generoaren aldagaia kontuan hartuta, Biztanleria Aktiboaren Inkestaren emaitzek adierazten dute urteko bigarren hiruhilekoan suntsitutako lanpostuen erdia baino zertxobait gehiago emakumeek betetzen zituztela, zehazki, % 52,3. Hainzuzenera, Espainiako Estatistika Institutu Nazionalaren (INE) inkestaren arabera, 22.600 emakume gutxiago daudelanean aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-% 3,9), eta gizonezkoetan enplegudun biztanleria % 3,2 murriztuko litzateke, hau da, 20.600 gutxiago. Urte arteko datuei dagokienez, 36.100 emakume gutxiago (-% 6,1) eta 31.700 gizon gutxiago (-% 4,9) zenbatu dira. Beste behin ere berresten da krisiaren ondorioek gogorrago astintzen dituztela gazteak eta kolektibo prekarioenak eta okerren ordainduak, hain zuzen ere esplotazio eta ahultasun handieneko baldintzengatik.

## Migranteak

Jatorriaren arabera izugarria da langabezia tasak ematen dizkigun datuak.

EPA inkestaren arabera langabezia tasa orokorra %10,08an kokatzen da Nafarroa Garaian eta %9,13an Euskal Autonomia Erkidegoan. Hego Euskal Herriko eta Espainiar Estatuko jatorria dutenen langabezia tasa baxuagoa da ordea, %8,25 eta %8,10 hurrenez hurren, bestelako jatorria dutenengandik urrun. Izan ere, Hego Euskal Herri zein Espainiar Estatutik kanpoko jatorria dutenen langabezia tasa %25,09ra igotzen da Nafarroa Garaian eta %21,83ra EAEn. Datu hauek oraindik eta larriagoak dira Europar Batasunetik (EB) kanpoko jatorria duten Euskal Herritarren langabezia tasari dagokionean, %36,83raino igotzen baita Nafarroa Garaian eta %28,19ra EAEn.


Langabeziari dagokionean, EBtik kanpoko jatorria duten emakumeak dira egoera okerrean daudenak Hego Euskal Herri osoan, %41,12ko langabezia tasarekin Nafarroa Garaian eta %35,62koarekin EAEn.

Gainera, osasun-krisia hasi zenetik EBtik kanpoko jatorria dutenen langabezia tasa orokorrak igoera handiagoa jasan du EBko jatorria dutenen artean baino, Nafarroa Garaian ia %16 puntuko eta EAEn ia %5 puntuko igoerarekin.

	OROKORRA		HEGO EUSKAL HERRI (HEH) ETA ESPAINIAR ESTATUKO (EE) JATORRIA		HEH ETA EE-TIK KANPOKO JATORRIA		HEH ETA EE-TIK KANPOKO ETA EUROPAR BATASUN BARNEKO JATORRIA		EUROPAR BATASUNETIK KANPOKO JATORRIA	
	2020 2H	2020 1H	2020 2H	2020 1H	2020 2H	2020 1H	2020 2H	2020 1H	2020 2H	2020 1H
Orokorra										
NAFARROA GARAIA	10.08	8.55	8.25	7.27	25.09	17.48	8.94	13.20	36.83	20.38
EAE	9.13	8.72	8.10	7.73	21.83	20.26	6.44	11.46	28.19	23.60
Gizonak										
NAFARROA GARAIA	10.13	8.23	8.59	7.82	21.03	10.82	4.09	10.68	34.07	10.93
EAE	7.93	8.18	7.20	6.98	17.13	20.44	8.17	7.12	20.86	24.87
Emakumeak										
NAFARROA GARAIA	10.01	8.92	7.86	6.65	31.80	26.80	17.71	17.55	41.12	31.89
EAE	10.40	9.29	9.06	8.50	26.62	20.01	4.66	16.27	35.62	21.69

Iturria: Espainiako Estatistika Institutu Nazionala (INE). Biztanleria Aktiboaren Inkesta.

## LANGABEZIA JATORRIAREN ARABERA 2020ko 2. hiruhilekoa




Iturria: Espainiako Estatistika Institutu Nazionala (INE). Biztanleria Aktiboaren Inkesta.

## Gizarte Segurantzako afiliazioa

Hala ere, lan-merkatuan gertatutakoa hobeto ezagutzeko, komeni da datu horiek Gizarte Segurantzako afiliazioaren bilakaerarekin osatzea, ez baititu inkesta baten mugak (batez ere egungo osasun-egoeran), erakunde horretan alta emandako pertsonen administrazio-erregistroa baita.

Hilabete bakoitzeko azken eguneko afiliazio-kopurua kontuan hartuta, ikusi ahal izan dugu martxoaren 31tik abuztuaren 31 bitartean Gizarte Segurantzaren sistemara afiliaturiko pertsonen kopurua 26.000 pertsona inguruan gutxitu dela. Hala ere, Irailan errekupeazio garrantzitsu bat eman da afiliazioari dagokionean, izan ere, Martxo bukaerako datuetan kokatu gara berriz Hego Euskal Herrian.

Afiliazioaren bilakaerak erakusten digun enplegu galera EPA inkestarena baino nabarmen txikiagoa da. Hala ere, denbora



tarteak ere oso desberdinak direla ohartarazi behar da,

Biztanleria Aktiboaren Inkestak hiruhileko bakoitzeko batez besteko okupazioa kalkulatzeko baitu.

Martxoaren erdialdean sartu zen indarrean alarma egoera. Beraz, interesgarria litzateke atzera begirako bat egitea, afiliazioak ordutik izan duen bilakaera ikusteko. Baina ez daukagu eguneko afiliazio-daturik.

Hala ere, otsailaren 28tik irailaren 30era 28.359 pertsona gutxiago daude afiliatuta Gizarte Segurantzaren.

Afiliazio-beherakada Erregimen Orokorrean kontzentratu da, 28.430 afiliazio gutxiago baititu epe tarte berean, galera osoa baino handiagoa.


Deigarria da azken datu hori ez datorrela bat, nabarmen, Biztanleria Aktiboaren Inkestaren emaitzekin. Inkestaren arabera, suntsitutako enpleguaren % 76 soldatapekoa zen (besteren konturakoa). Eta lehen hiruhilekoarekin alderatuta, norberaren konturako biztanleria enplegudunak 9.200 pertsonatan egin du behera.

## NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA ETA GATAZKAK

Estatu Espainolean 2011an negoziazio kolektiboan eginiko erreformak gogor astindu zuen Hego Euskal Herriko lan-hitzarmen kolektiboen errealitatea. Enpresa eta Estatuko hitzarmenen lehentasuna ezartzeaz gain, hitzarmenen aurrera-eragintasuna mugatu zuen besteak beste, langileek ordu arte lan baldintzak mantentzeko zituzten bermeak ezabatuz.

Hego Euskal Herriko langileek duten hitzarmenen estaldura tasa jaisten joan da urtez urte kolpe gogorrena 2014an izanik. Dena den, 2017tik aurrera errekupeazio bat ikusten dela azpimarratu beharra daukagu, langile borroka eta gatazkekin lotu dezakegun errekupeazioa ondoren ikusiko dugun bezala.

HITZARMENEN ESTALDURA EAEN



Iturria: geuk egina Lan Harremanen kontseilua eta Espainiako Estadistika Institutu Nazionalaren (INE) datuekin.

\* Erregimen orokorrean altan dauden langile guztiak hartu ditugu kontuan, baita lehen sektoreko eta etxeko langileen erregimenean altan daudenak ere.

### EAE

#### EAEko lan-hitzarmen kolektiboaren estaldura tasa

Besteren konturako langileak kontuan izanik honakoak dira hitzarmen kolektiboan dauden langileak.

Datu hauek ulertzeko honako elementuak kontuan izan behar ditugu:

- Lehenik eta behin, esan behar dugu negoziazio kolektiboko akordioak izenpetu ditzaketen langileen artean ez daudela funtzionarioak, gaur egun, euren lan baldintzak ez direlako hitzarmen kolektibo bidez ezartzen. Gainera, Lan Harremanen Kontseiluak (LHK) datu hauek lantzeko garaian, ez ditu administrazio publikoetan ari diren langileak kontuan hartu, bai ordea sozietate publikoetan lan egiten duten eta noizbait enpresa-hitzarmen bat izenpetu duten lan-kontratadun langile publikoak.
- LHK-ren arabera, 2019an 660000 langile ziren negoziazio kolektibo bidez euren lan-baldintzak ezar zitzaketen langileak. Eta horien artean sartzen dira euren lan-baldintzak hitzarmen kolektibo baten bidez inoiz arautu ez diren langile kolektiboak, 55000 langile inguru urte berean EAEn (soldatapeko langileen %8,3 inguru). Kolektibo horien baitan kokatzen dira besteak beste honakoak: etxeko langileak (28581 lagun 2019 amaieran), orokorrean tamaina txikiko enpresetako langile diren osasungintzako langileak (adibidez mediku edo albaitaritzak kontsultetan) eta baita Arabako bulegoetako langileak (Bizkaian eta Gipuzkoan ez bezala inoiz ez baita izenpetu bulego eta despatxuen sektoreko hitzarmenik). Gainera, hitzarmen kolektibo bidez euren lan baldintzak inoiz arautu ez dituzten kolektibo honetan %75a emakumea da.

Elementu horiek kontuan izanik, indarrean eta luzapen-egoeran dauden hitzarmen guztien eraginpean dauden langileen

bilakaera aztertu dugu, bertan behera geraturiko lan hitzarmenak kanpo utziz. Euskal Autonomia Erkidegoan 2011ko erreformaren eragin bortitzena 2014an izan genuela erakusten digute datuok, urtebetean 120000 baino langile gehiago geratu baitziren hitzarmen kolektiboren baten babesik gabe. 2016an behera jo ondoren, pixkanaka hitzarmenpean dauden langileen kopurua hazten ari da.

2013 arte EAEko langile guztien %80 baino gehiagok zuen hitzarmen kolektibo baten babesa, 2014tik aurrera ikusi ditugun ehunekoetatik urrun, izan ere, urte horretatik aurrera %60 inguruan kokatu da hitzarmenen estaldura-tasa, 2020an %66ra igoz.


Beraz, datuek, hitzarmenen eragina handitzen doala erakusten digute oso pixkanaka bada ere, baina oraindik 2011 aurreko egoerara iristeko urruti gaude. Azken datuen arabera, Gizarte Segurantzaren altan dauden langileen %32k ez dauka babestuko duen hitzarmenik (zer esanik ez Gizarte Segurantzaren alta eman gabe, estatistika eta datu ofizial guztietatik at, lanean ari diren langile guztiak).

## Emakumeak kaltetuenak

Hitzarmenen babesa generoaren arabera behatu ezker, gizonezkoek estaldura handiagoa dutela ikus dezakegu. Hitzarmenpean dauden langileen %54a gizonezkoa da, emakumeak ez dira %46ra iristen:

### HITZARMENPEAN DAUDEN LANGILEAK GENEROAREN ARABERA

	Kopurua	Ehunekoa
Emakumeak	234.281	45,62
Gizonak	279.284	54,38
Guztira	513.565	




Iturria: LHK

13

## Aplikazio eremua

2015an sektoreko hitzarmenek jaitziera garrantzitsua izan zuten langile kopuruari dagokionez eta enpresetako hitzarmenetan igoera izan zen, baina igoera honek ez zuen inolaz ere konpentsatu sektoreko hitzarmenen jaitziera. Dena den, azken urteetako hitzarmenen eraginaren zabaltzeak bai sektore zein enpresa mailan izan du eragina, sektore eremuak izanik igoerarik nabarmenena.

### HITZARMENENPEAN DAUDEN LANGILE KOPURUA SEKTORE EDO ENPRESA EREMUAREN ARABERA




Iturria: LHK

	2012	2015	2018	2019	2020
Sektorea	462.706	420.335	434.338	457.726	460.649
Enpresa	119.154	128.922	142.576	147.222	144.585

Herrialde edo autonomikoa izan hitzarmena edo Estatala izan, horra beste gakoak. 2015ean herrialdeko edo autonomia izaerako hitzarmenek behea jo ondoren, errekuperazio bat ikusten dugu 2018tik aurrera. Estatalek 2015eko goranzko joerari eutsi egin diote, azken urteetan ere joera hori mantenduz.

### HITZARMENENPEAN DAUDEN LANGILE KOPURUA SEKTORE EDO ENPRESA EREMUAREN ARABERA



	2012	2015	2018	2019	2020
Herrialdekoa edo autonomikoa	456.200	402.111	415.801	438.441	438.751
Estatala	125.660	147.146	161.113	166.507	166.483

Iturria: LHK


### Greba deialdiak

Interesgarria da datuok greba deialdien eta jarraipenarekin alderatzea. 2015ean hitzarmenpean zeuden langileek behea jo ondoren, greba deialdien kurbarekin bat datorren errekuperazio gradual bat ematen ari da.

	2012	2015	2018	2019
Greba	278	184	264	308
Partehartzaileak	21600	10608	48696	79860
Lan egin gabeko jardunaldiak	130930	18222	110838	391830

Iturria: LHK

## EAEKO GREBAK: KOPURUA, PARTEHARTZAILEAK ETA LAN EGIN GABEKO JARDUNALDIAK



### Nafarroa Garaia


Nafarroa Garaiko datuak ez dira EAEkoekin konparagarriak. Nafarroa Garaian bertan sinatzen diren hitzarmenen datuak ditugu, hau da, enpresa eta herrialde mailakoak, eta soilik indarrean daudenak (luzapenean edota bertan behera geratutakoen daturik ez dugu). Beraz, herrialde horretako langileen hitzarmenen zati bat besterik ez dugu aztertuko. Dena den, datu interesgarriak dira behatzeko.

	2012	2015	2018	2019	2020*
Guztira	33.226	22.518	46.832	57.281	66.517
Enpresakoak	12.427	8.556	13.135	12.270	11.207
Herrialdekoak	20.799	13.962	33.697	45.011	55.310

Iturria: Espainiako Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioa

EAEen bezala 2015ean hitzarmenpean dauden langileek jaitziera izugarria izan zuten. Ondorengo urteetan 2012an baino


### HITZARMENAK NAFARROA GARAIAN



langile gehiago ditugu hitzarmenpean, Nafarroa Garaiko hitzarmenpean behinik behin, eta herrialdeko hitzarmenek urtez urte indarra hartzen dutela ikus dezakegu.

## Greben efektua

GREBEN EFEKTUA NAFARROA GARAIAN



EAEen bezala, lan hitzarmenen estaldurak greben ugartzearekin lotura zuzena duela ondoriozta dezakegu datuok ikusita. Greba deialdiek 2015ean behea jo ostean igoera interesgarria izan dute ondorengo urteetan, 2019an 102 greba deialdi erregistratzera iritsiz.



## SOLDATAK

Soldaten egiturak jendarte bateko soldaten arteko arrakala eta desberdintasunei buruzko informazio anitz ematen digu.

Beraz, Hego Euskal Herriko soldatak aztertu ahal izateko, Estatu Espainoleko Estadistika Institutu Nazionalak (INEk) burutzen duen Soldata Egiturari buruzko Inkesta aztertu dugu. Inkesta honi esker Industria, Eraikuntza eta Zerbitzuetako soldaten egitura eta banaketa aztertu ahal izan dugu. Dena den, soldatapean lan egiten duten langile gehienek soldatak aztertu baditugu ere, sektore batzuk kanpoan geratu direla kontuan izan behar dugu, lehen sektorea, administrazio publikoko langileak edota etxeko langileak horien artean. Publikaturiko azken datuak 2018koak dira.

### 2018an soldatak Hego Euskal Herrian. Arrakalak.

Hego Euskal Herriari dagokionez, arrakalak eremu desberdinetan ematen dira:

#### Generoaren arabera

ekainean argitaraturiko datuen arabera, Hego Euskal Herriko urteko batez besteko soldata 27.875 euro gordinekoa izan zen 2018an. Baina generoaren ikuspegitik, gizonen batez besteko soldata urtean 31.417 euro gordinera iritsi zen, eta emakumeen batez besteko soldata urtean 24.278 eurokoa izan zen. Horrek esan nahi du gizonen soldata emakumeena baino % 29,4 handiagoa dela, hau da, urtean 7.139 euroko aldea dagoela bien artean.

#### URTEKO BATEZ BESTEKO SOLDATA GORDINA

2018 urtea	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	Aldea
NAFARROA GARAIA	26.364,75	29.546,12	22.697,59	-6.848,53
ARABA / BIZKAIA / GIPUZKOA	28.470,94	31.970,30	24.757,18	-7.213,12
Hego Euskal Herria	27.875,39	31.417,49	24.278,18	-7.139,31

Iturria: Estatu Espainoleko Estadistika Institutu Nazionala (INE). Soldata-egiturari buruzko inkesta

#### Soldata arrakala handiagoa

Dena den, soldata hauei honako puntualizazioa egin beharra dago: soldata-egiturari buruzko inkestak aldi baterako kontratuetan (edo beste edozein arrazoiengatik inkestatutako pertsonak ez badu urte osoan lan egin) soldatak urte osora doitzen ditu emaitza konparagarriak lortu ahal izateko. Beraz, gure herrialdean dagoen behin-behinekotasun-tasa altuekin, soldata errealak baxuagoak direla ondoriozta dezakegu, eta gainera, soldatapeko emakumeen artean behin-behinekotasun tasa sei puntu handiagoa denez, soldata arrakala handiagoa izan daiteke.

### Lanaldi motaren arabera

Lanaldi motak modu erabakigarrian baldintzatzen du soldata-maila, beraz, ondo behatu beharreko aldagaia dugu.

#### URTEKO BATAZ BESTEKO SOLDATA GORDINA, JARDUNALDIAREN ARABERA (2018)

NAFARROA GARAIA	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Guztira	26.364,75	22.697,59	29.546,12
<b>Jardunaldi osoa</b>	<b>30.360,44</b>	<b>27.946,44</b>	<b>31.921,62</b>
Jardunaldi partziala	12.590,62	12.717,74	12.276,26
EAE	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Guztira	28.470,94	24.757,18	31.970,30
<b>Jardunaldi osoa</b>	<b>32.802,24</b>	<b>30.762,93</b>	<b>34.292,74</b>
Jardunaldi partziala	12.335,11	11.624,29	14.157,36

Iturria: Espainiako Estadistika Institutu Nazionala (INE). Soldata-egiturari buruzko inkesta

2018an, lanaldi osoko urteko batez besteko soldata 30.360 euro gordinekoa izan zen Nafarroa Garaian, eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako batez bestekoa 32.802 eurokoa. Urtea 14 ordainsariaren artean banatuko bagenu, Nafarroa Garaian 2.168 euroko hileko batez besteko soldata eta EAEn 2.343 eurokoa izango genuke.

### Kontratu motaren arabera

kontratu mota ere soldata-ordainsariaren zenbatekoa gehien baldintzatzen duten aldagaietako bat da. Zehazki, iraupen mugatuko aldi baterako kontratu batekin lan egiten dutenek kontratu mugagabeen batez besteko ordainsaria baino % 30 gutxiagoko soldata jasotzen dute, batz beste.

### Adinaren arabera

Langileen adinaren arabera ere soldata arrakala handia dago. Neurri batean, soldata-alde garrantzitsu horiek beste inguruabar batzuekin lotuta daude, hala nola lanpostuan izandako esperientziarekin, enpresako antzinatekin edo lan-harreman motarekin. Horri dagokionez, gogorazi behar da lan-kontratua duten 25 urtetik beherako lau gaztetik ia hiruk aldi baterako enplegua dutela.

Gazteak langabeziaren eta prekarietatearen artean harrapatuta daude. 25 urtetik beherako gazteek langabezia-tasa oso altua jasaten dute, eta lana aurkitzen dutenean iraupen laburrekoa edota lanaldi partzialekoa izaten da.

Gazteen esplotazio-mailak enplegu prekarioenen eta okerren ordaindutakoen hartzaile bihurtzen ditu. Hala, 25 urtetik beherako adin-tartean, soldatak nabarmen txikiagoak dira, zehazki, batez besteko soldata orokorraren erdia.

#### URTEKO BATAZ BESTEKO SOLDATA GORDINA, ADINAREN ARABERA (2018)

	NAFARROA GARAIA		EAE	
Adin guztiak	26.364,75	100,0%	28.470,94	100,0%
<b>25 urte baino gutxiago</b>	<b>13.567,95</b>	<b>51,5%</b>	<b>14.264,80</b>	<b>50,1%</b>
25-34	22.211,18	84,2%	22.163,12	77,8%
35-44	27.144,42	103,0%	28.256,17	99,2%
45-54	28.690,71	108,8%	31.217,08	109,6%
55-...	28.036,44	106,3%	31.692,85	111,3%

Iturria: Espainiako Estadistika Institutu Nazionala (INE). Soldata-egiturari buruzko inkesta

## Pertzentilen arabera

Batez besteko estatistikoa datu-serie edo -banaketa baten batez besteko balioa da. Kasu honetan, soldata-batezbestekoak erreferentzia-neurri bat ematen digu gure herrialdeko soldaten joera zentralari dagokionez.

Hala ere, balio muturrekoen eragin handia dute batez besteko soldatan, hau da, soldata txikienek eta altuenek. Horregatik, beharrezkoa da soldatak banatzeko moduari buruzko informazio osagarria eta zehatzagoa emango diguten beste neurri batzuk izatea.

Horretarako, oso baliagarria da soldata-banaketaren posizio erlatiboko neurriak edo zenbatekoak kalkulatzeko. Hau da, soldatapekoak txikitik handira ordenatzea, jasotako soldataren arabera, eta tarte berdinetan banatzea (talde bakoitzean pertsona-kopuru bera sartuta). Horrela, kuartilek lau zati edo taldetan banatzen dute banaketa; kintilek bost zatitan banatzen dute; eta dezilek hamar zatitan.

Adibidez, lehen dezilean (txikiena) soldata-populazioaren % 10 biltzen da soldata txikienekin. Eta dezilik handienean dago soldata handienak jasotzen dituen % 10. Saillapen-eredu horien arabera, Nafarroa Garaian soldatarik onenak dituzten soldatapekoen % 10ek 4 aldiz gehiago irabazten dute, batez beste, okerren ordainduak diren % 10a baino.

Eta EAEn soldata altuenak dituzten biztanleriaren % 10ak batez beste 5 aldiz gehiago irabazten dute soldata baxuagoak dituztenek baino. Emakumeen kasuan, ongien ordaindutakoek okerren ordaindutakoek baino 6 aldiz gehiago kobratzen dute; hala ere, emakumeen artean soldata-alde handiagoak daude lanaldi partzian lan egiten duten emakumeen kopurua oso handia delako.

### URTEKO BATAZ BESTEKO SOLDATA GORDINAREN BANAKETA (2018)

	Soldata honen azpitik dago soldatapekoen %10	Soldata honen azpitik %25	Soldata honen azpitik %50	Soldata honen azpitik %75	Soldata honen gaitetik dago %10
<b>NAFARROA GARAIA</b>	10 pertzentila	Beheko kuartila	Erdiko balioa	Goiko kuartil	90 pertzentila
Guztira	10.548,78	17.607,97	23.602,88	33.138,77	43.695,59
Emakumeak	8.976,71	13.640,48	20.530,96	29.150,65	38.472,60
Gizonezkoak	14.790,02	20.553,03	26.845,99	35.948,68	47.146,66
	Soldata honen azpitik dago soldatapekoen %10	Soldata honen azpitik %25	Soldata honen azpitik %50	Soldata honen azpitik %75	Soldata honen gaitetik dago %10
<b>EAE</b>	10 pertzentila	Beheko kuartil	Erdiko Balioa	Goiko kuartil	90 pertzentila
Guztira	9.824,86	16.813,31	25.427,64	37.658,72	48.542,00
Emakumeak	7.668,76	13.331,94	20.933,65	33.683,72	45.478,59
Gizonak	14.445,02	20.908,00	28.922,30	40.391,18	51.280,00

Iturria: Espainiako Estadística Instituto Nacionala (INE). Soldata-egiturari buruzko inkesta

OHARRA: ez da jardunaldia bereizten, beraz, jardunaldi osoa eta partziala jasotzen ditu

## Soldatetan arrakalen bilakaera azken hamarkadan. Hego Euskal Herria.

Taula honek oso modu grafikoan jasotzen du hazken hamarkadan soldatetan dauden arrakala desberdinek izaniko bilakaera Hego Euskal Herrian. Batez besteko soldatarekin dauden aldeak aztertu ditugu pertzentil altuenaren eta baxuenaren, generoaren, adinaren eta kontratu motaren arabera.

### BATEZ BESTEKO SOLDATA ETA HORREKIKO ALDEA (€/URTEAN). HEGO EH.

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
<b>BATEZ BESTEKO SOLDATA</b>	25,050	25,590	25,970	25,920	25,910	26,210	27,070	26,940	27,020	27,760	27875
<b>BATAZ BESTEKOAREKIKO ALDEA BI GENEROAK</b>											
Pertzentil apalena	-15,270	-15,730	-16,380	-16,470	-17,040	-17,110	-17,920	-17,330	-17,510	-17,650	-17885
Pertzentil altuena	16,270	16,510	18,140	16,380	17,450	18,490	18,630	18,040	19,020	18,440	19555
<b>EMAKUMEAK</b>											
Batezbestekoa	-3,850	-3,760	-3,880	-4,020	-4,240	-4,250	-4,110	-4,070	-4,150	-4,110	-3591
Pertzentil apalena	-16,890	-17,430	-17,750	-18,300	-18,520	-18,730	-19,840	-19,540	-19,640	-19,820	-19907
Pertzentil altuena	10,930	12,890	13,460	11,930	12,480	13,380	13,930	13,970	14,280	14,090	15997
<b>GIZONEZKOAK</b>											
Batezbestekoa	2,840	2,800	3,120	3,190	3,610	3,520	3,580	3,590	3,540	3,390	3539
Pertzentil apalena	-11,700	-11,490	-12,640	-12,290	-13,270	-14,490	-14,400	-13,090	-14,380	-13,890	-13351
Pertzentil altuena	18,890	19,040	21,000	19,760	21,320	22,870	22,680	21,490	22,320	21,820	22457
<b>ADINAREN ARABERA</b>											
25-34 urte	-2,820	-3,220	-3,320	-3,370	-3,730	-4,560	-4,410	-4,960	-5,250	-5,840	-5701
35-44 urte	280	320	330	620	280	370	10	210	190	110	126
45-54 urte	3,460	3,060	3,920	2,950	2,950	2,550	2,580	2,050	2,150	1,990	2762
55 urte eta +	1,920	1,430	1,710	1,440	1,070	1,730	2,230	2,540	2,160	2,410	3208
<b>KONTRATU MOTAREN ARABERA (BATAZ BESTEKOAK)</b>											
Mugagabea	1,840	1,500	2,200	1,900	1,800	1,930	2,060	1,750	1,660	1,610	2185
Aldi baterakoa	-6,090	-5,340	-7,030	-7,050	-7,540	-8,350	-8,110	-7,390	-8,130	-7,540	-6921

Iturria: Espainiako Estatistika Institutua (INE). Soldata Egiturari buruzko Inkesta. Gaindegia

### Soldata baxuenen eta altuenen arteko arrakalak gorantz

Batez besteko soldatarekin alderatuta pertzentil apalenean kokaturiko soldaten batezbestekoak behera egin du nabarmen, pertzentil altueneko soldatek gora egin duten neurri berean. Beraz, soldatetan oinarrituz behintzat, 2008tik aurrera prekarietatean sakondu dela esan dezakegu, soldata altuenek gorantz egin duten bitartean.

### Soldata baxuenak dituzten emakumeak kaltetuenak

Generoaren arabera soldata arrakala aztertuz, arrakala maila altuetan mantentzen da hamarkada osoan, gora-behera batzuekin.

Azpimarratzekoa da soldataren pertzentil baxuenean kokatzen diren emakumeen soldata dela eremu guztietan soldata baxuena duena, eta gainera, 2008tik emaniko bilakaera negatiboa izan dela, batez besteko soldatatik nabarmen urrunduz. Kontrara, pertzentil altuenean kokatzen diren emakumeek soldataren igoera garrantzitsua izan dute, nahiz eta pertzentil berean kokatzen diren gizonezkoen soldatatik urrun egon oraindik.

## Gazteen soldatak beherantz. Soldata altuenen adinean aldaketa.

Adinaren arabera banaturiko soldatak informazio interesgarria eskaintzen digu.

Alde batetik, gazteen soldatei dagokiena. Batz bestekoa baino soldata baxuagoarekin kokatzeaz gain, 2008tik izan dugun bilakaerak, adinaren arabera soldata arrakala gutxitzetik urruti, nabarmen hazi dela esan beharra daukagu.

Bestetik, soldata altuenen adin tartea da aldatu dena hamarkada honetan. 2008an 45-54 adin tartean kokatzen baziren soldata altuenak, hamarkada bat pasa ondoren soldata altuenak 55 urtetik gorako adin tartean kokatzera pasa dira. Urtez urte egoniko erreformek, lan merkatuaren desregularizazioak, prekarietatearen hedatzea ekartzeaz gain, lan baldintza orokorrak okertu ditu, soldatetan belaunaldi berriak izaten ari diren kostuak erakusten dituzten bezala. Gaur egun erretiroa hartuta edo erretiroa hartzeaz dauden enplegudun langileak (gizonezkoak gehienak) izan dira hein handi batean negoziazio kolektibo indartsu baten ondorioz lorturiko lan-baldintzak mantendu dituztenak.

### Aldi baterako kontratuetan soldata baxuagoak

Aldi baterako kontratuak dituztenak oro har sektore eta kolektibo zaurgarrietako langileak izan ohi dira. Hori argi geratu da, osasun-krisiaren ondoren lan merkatuak izan duen astindua aztertzen badugu, enplegua galtzen lehenak aldi baterako kontratuak zituztenak izan baitira, gazteak bereziki.

Aldi baterako kontratatuta dauden langileek soldata baxuagoak izan ohi dituzte, eta 2008tik emaniko bilakaerak, urtez urte aldaketak egon badira ere, aldi baterako kontratuen eta mugagabearen artean soldata arrakala mantentzen dela erakusten digu.

## LAN OSASUNA

21

Osasunerako Mundu Erakundearen arabera "osasuna ongizate fisiko, mental eta sozial osoko egoera da, ez kalterik edo gaixotasunik ez izatea soilik".

Beraz, laneko osasunari erreparatzen diogunean, berau ez da osasuna edo bizia lanpostuetan ez galtzea soilik, oreka eta ongizate fisiko, mental eta soziala bermatzeaz hitz egin beharko genuke.

Laneko osasuna bere osotasunean neurtzeko neurgailu nahikorik ez dugu ordea. Ezin dugu neurtu langile askok jasaten duten laneko presioa, ezta beste askok isilean jasaten duten mobbing-a ere. Datuak eskuartean, laneko gaixotasun, istripu eta heriotzak aztertuko ditugu soilik.

### Lan istripuak

EAE eta Nafarroa Garaiko datu ofizialak kontuan izanda, 2018tik 2019ra igoera bat eman dela ikusten dugu. EAEn lan istripu baten ondorioz baja hartu duten langileen artean arin moduan izendatu direnek izan dute igoera nabarmenena. Nafarroa Garaian ere igoera izan dute arin moduan izendatuek, baina baita larri eta hilgarriek ere.

LAN ISTRIPUAK EAEN (2018-2019)

	2019	2018	Aldea	%
Lan istripuak (LI)	85.132	82.849	2.283	2,76
Bajarik gabeko LI	46.137	47.063	-926	-1,97
Bajarekin LI	38.995	35.786	3209	8,97
Bajarekin LI				
Arinak	36.870	33.728	3.142	9,32
Larriak	206	207	-1	-0,48
Hilgarriak	31	37	-6	-16,22

Iturria: Osalan

### LAN ISTRIPUAK NAFARROA GARAIAN (2019-2018)

	2019*	2018*	Aldea	%
Lan istripuak (LI)	19.657	17.653	2.004	11,35
Inzidentzia indizea	69,45	74,13		
Bajarik gabeko LI	10.478	9.961	517	5,19
Bajarekin LI	9.179	7.692	1.487	19,33
Bajarekin LI				
Arinak	19.563	17.585	1.978	11,25
Larriak	81	55	26	47,27
Hilgarriak	13	9	4	44,44

Iturria: Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua

\*2019an Iraila arteko datuak ditugu. 2018koan ere epe bera hartu dugu kontuan konparagarriak izan daitezten.

Lan istripu arinek izandako igoeraren ondotik, lan istripuak larri edo arin moduan izendatzeko ez dagoela definizio legal edo teknikorik esan beharra daukagu. Horren ondorioz, enpresek eta mutualitateek nahiko erraz dute lan istripu gehienak arin moduan izendatzeko, baita istripu larriak ere. Modu horretara, Lan Ikuskaritzak istripuak aztertzea ekidin eta istripua berriro ez gertatzeko neurriak hartzea eragozten da. Gehiengo sindikalak 2019an publiko eginiko lan osasunari buruzko txostenean, istripu larriak, gertatutakoak baino 3,5 eta 15 (tartean) aldiz gutxiago deklaratzeko direla jasotzen da.

Lan istripuen zenbateko orokorrak ere goranzko joera duela ikusi dugu datuotan, datu ofizialetan. Goranzko joera horren arrazoi nagusia Hego Euskal Herriko lantokietako prekaritatea eta lan baldintza kaxkarrak izanda, jakin badakigu gertatzen diren laneko istripu guztiak ez daudela laneko istripu gisa jasoak: lan istripu arinak, in-itinere gertatzen diren asko, etxeko langileenak, garraiolarienak etab. Bestetik, lantokietatik iristen zaigun informazioaren arabera, enpresa batzuk, mutualitateen laguntzarekin, laneko istripu eta gaixotasun batzuk Gizarte Segurantzara bideratzen dituzte istripu eta gaixotasun arruntak balira bezala, gertaturikoa ikertzea saihestuz.

Bestalde, laneko istripu hilgarrietan istripu asko datu ofizialetatik kanpo uzten dira gero aztertuko dugun bezala, eta bestelako laneko istripuetan ere gauza bera gerta daitekeela pentsa dezakegu.

## Lan istripu hilgarriak

Laneko istripuetan hildako langileen kopuruak onartezina izaten jarraitzen du. Gainera, datu ofizialak eta gehiengo sindikalaren zein LABen datuak ez datoz bat. Alde batetik, LABen datuak datu nazionalak dira, hau da, Iparraldean jazotako istripuak ere aintzat hartzen ditu. Baina ondorengo taulan ikusten den bezala, ez da hori alde nabarmenena eragiten duen arrazoia, Osalan eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren erregistro politikak laneko istripu anitz uzten baititu erregistro ofizialetatik.

### HEGO EUSKAL HERRIAN LAN ISTRIPU HILGARRIAK

	Datu ofizialak	LAB	Aldea
2015	43	52	9
2016	49	53	4
2017	43	54	11
2018	47	68	21
2019	44	46	2

Iturriak: Osalan, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua eta LAB sindikatua.

Bost urte hauetan laneko istripuetan hildako langileen %20a baino gehiago utzi dute datu ofizialetatik kanpo, errealitatea desitxuraturaz.

## Laneko gaixotasunak

Laneko gaixotasunek ere urtez urte goranzko joera dutela ikus dezakegu, 2019ko Nafarroa Garaiko datuak Iraila bitartekoak direla kontutan hartuz.

### LANEKO GAIXOTASUNAK HEGO EUSKAL HERRIAN

	2015	2016	2017	2018	2019*
EAE	2.610	2.741	3.101	3.278	3.158
Nafarroa Garaia	1.552	1.580	1.420	1.557	1.375
Guztira	4.162	4.321	4.521	4.835	4.533

Iturriak: Osalan, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua  
\* Nafarroa Garaiko datuak Iraila bitartekoak dira

Laneko gaixotasunek goranzko joera dute, eta hala ere, estatistika ofizialetatik kanpo geratzen den laneko gaixotasun kopurua izugarria da. Ohikoa da mutualitateek gaixotasunaren laneko jatorria ukatu eta osasun sistema publikora bideratzea langilea.

Laneko Osasun eta Segurtasunerako Europako Agentziaren arabera lan istripuan hildako langile bakoitzeko 35 langile hiltzen dira gaixotasun profesionalaren ondorioz. Laneko gaixotasunaren estatistika ofizialek ordea ez dute heriotzarik jasotzen. Euskal Herrian, Laneko Osasun eta Segurtasunerako Europako Agentziaren irizpidea aplikatuz, 2019an 1610 langile hilko lirateke laneko gaixotasunen ondorioz.

## ERRETIROA ETA ALARGUNTASUNA

Pentsiodunen borrorak gaur eguneko errealitatea azaleratu eta lanean dihardutenen etorkizuneko pentsioen inguruko eztabaida indartu du.

Ipar zein Hegoaldeko pentsio sistemak familia eredu tradizionalen oinarritu ziren euren sorreran, gizonezkoen soldatapeko lanaren arabeko sistemak diseinatu. Gaur egun, erreformak erreforma, sistema horiek berak dira indarrean jarraitzen dutenak, emakume eta gizonen arteko pentsio arrakala mantendu eta elikatuz. Izan ere, 2018 bukaeran gizonezkoen pentsioa (kontribuzio bidezkoa) emakumezkoena baino %67 altuagoa zen.

Hego zein Ipar Euskal Herrian urtez urte-pentsioen finantziakzioa hobetzeko inolako neurririk hartu gabe -Espainiako zein Frantziako gobernuek ezarritako erreformek pentsioen gastua murriztea izan dute helburu. Pentsio sistema errotik aldatu ezean, prekaritatean oinarrituriko lan merkaturik kontutan harturik eta etorkizuneko pentsioak langileak izaniko kotizazioen arabera kalkulatu direla ikusirik, gaur eguneko langile asko zahartzarora arik eta pobrezia arrisku handiagoarekin iritsiko direla aurreikusitako dezakegu. Gainera, soldaten atalean aztertu dugun sexuaren arabeko soldata arrakalak pentsioen arrakala mantentzen laguntzen jarraituko du.

### Alarguntasun pentsioak Hego Euskal Herrian

Baina pentsioetan dauden arrakalak erreparatzeko beharrezkoa da alarguntasun pentsioei ere so egitea. Izan ere, alarguntasun pentsioa jasotzen duen %93 baino gehiago emakumezkoa da, erretiroa jasotzen duen %38aren ondoan.


### ALARGUNTASUN PENTISIOA HEGO EUSKAL HERRIAN (2009-2019)

	2009	2014	2018	2019
OROTARA	158.587	164.327	165.034	165.098
<600 €/hilean (%)	53.2	27.4	24.8	23.2
600-800 €/hilean (%)	22.6	37.6	32.5	27.1
800-1.100 €/hilean (%)	13.5	18.6	20.3	18.5
1.100-1.500 €/hilean (%)	10.4	15.5	19.3	24.4
1.500-2.000 €/hilean (%)	0.2	0.8	3	6.7
> 2.000 €/hilean (%)	0	0	0.1	0.2

Iturria: Espainiako Lan, Migrazioen eta Gizarte Segurantzako Ministerioa. Gaindegia.

Pentsiodunen mugimenduak bere aldarrikapenetan, erreferentzia gisa, 1080 euroko gutxieneko pentsioa ezarri du. 1100 euroko erreferentzia harturik, alarguntasun pentsioen ehuneko oso altua, %69, erreferentzia horren azpitik kokatzen da, eta %50 baino gehiago 800 euroren azpitik. Bizitza osoa, batik bat, etxeko eta zaintza lanetan aritu ostean, euren bikotearen kotizazioaren arabera pentsio eskasak jasotzen dituzte milaka emakumek Hego Euskal Herrian.

### ALARGUNTASUN PENTSIKAK ZENBATEKOAREN ARABERA HEGO EH



Iturria: Espainiako Lan, Migrazioen eta Gizarte Segurantzako Ministerioa. Gai degia.

### Erretiro pentsioak Hego Euskal Herrian

Azken urteotan erretiroa hartu duten pertsonen nabarmen egin dute gora; hala izanik, 10 urtetan... 83.200 pertsona gehiago dira erretiro pentsioa jasotzen ari direnak. Gainera, hamarkada horretan erretiro pentsio kopuru altuenak izan duen igoera nabarmenezkoa da. Izan ere, orain erretiroa hartzen ari diren langile asko beren borrokei eta negoziazio kolektiboari esker lortu zituzten lan baldintzen arabera pentsioak jasotzen ari dira. Nolanahi ere, erretiro pentsioa jasotzen duen %39ak 1100 euro baino gutxiagoko pentsioa jasotzen du.

#### ERRETIRO PENTSIKAK HEGO EUSKAL HERRRIAN (2009-2019)


	2009	2014	2018	2019
OROTARA	370.910	411.304	444.929	454.110
<600 €/hilean (%)	34	18,5	15,1	13,9
600-800 €/hilean (%)	10	19,6	18,1	16,8
800-1.100 €/hilean (%)	9,1	7,3	7,6	8,3
1.100-1.500 €/hilean (%)	22,4	21,5	20,6	20,1
1.500-2.000 €/hilean (%)	16,1	16,4	16,1	15,9
> 2.000 €/hilean (%)	8,4	16,7	22,5	24,8

Iturria: Espainiako Lan, Migrazioen eta Gizarte Segurantzako Ministerioa. Gai degia.

Etorkizuneko kurba nolakoa izango den marraztea ezinezkoa bazaigu ere, pentsiodun gehiago egonagatik pentsioen gastua murriztea helburu izan duten erreformek eta prekarietatean oinarrituriko lan merkatuak bere horretan jarraitu ezker, pentsiodunen artean pobrezia hedapena errealitate gordinagoa bihurtuko da. Pentsio baxuenen kopuruak goranzko joera izango duen artean, pentsio altuen kopuruak behera egingo baitu.



## ERRETIRO PENSIOAK ZENBATEKOAREN ARABERA HEGO EH



## POBREZIA

Zaila da 2020ko osasun krisiaren ondoren harturiko erabakien eragin ekonomiko eta soziala aurreikustea. Baina dagoeneko ondorio batzuk atera ditzakegu gertatu denaren inguruan eta gertatzen ari denaren inguruan. Lehen hilabeteetan langabezia eta enplegu-erregulazioak nabarmen handitu dira. Ondorioak arintzeko onarturiko neurriak beharko lirateketenik urrun, desberdintasunak eta pobrezia areagotzeko arrisku bizia dago errotiko politika aldaketa gertatzen ez bada.

Gaur eguneko abiapuntua larria da, izan ere, 2008aren ondoren eginiko erreformen eta harturiko neurri politiko atzerakoien ondorioz pobrezia eta bazterketa soziala areagotu egin dira gurean.

Pobrezia neurtzeko, tamalez, azken datuak 2018 koak ditugu; beraz, ezin izango dugu pandemiak pobrezian zer nolako eragina izan duen neurtu. Datu askorekin gertatzen zaigun bezala, errealtatea neurtzeko tresnak berandu heltzen zaizkigu, batik bat, osasun krisiaren ondorioz bizi dugun errealtate aldakor hau bezalakoetan.

Gaur eguneko errealtatea neurtzeko ariketa aurrerago egin beharko badugu ere, 2018 urte arteko datuek ere ondorio interesgarriak ematen dizkigute, eta azken hamarkadan izaniko bilakaera aztertu dugu.

Hego Euskal Herrian hedaturik dagoen pobrezia aztertzeko garaian, hiru neurgailu desberdin erabili ditugu: Pobrezia arriskuaren tasa, batez besteko errenta eta gabezia materiala.

### Pobrezia arriskua

Pobrezia arriskuaren tasak herrialde batean bere diru-sarrera garbiak pobrezia mugatik behera jasotzen dituzten pertsonen ehunekoa neurtzen du.

Pobrezia arriskua neurtzeko, oro har, Eurostat-ek (Europako Estatistika Bulegoa) erabiltzen dituen irizpideak hartu ohi dira kontutan. Hauen arabera, pertsona bat pobrezia arriskuan dago bere diru-sarrerak sarrera garbien erdiko balioaren (ez nahastu batezbestekoarekin) %60aren azpitik daudenean. Kopuru horrek pobrezia erlatiboaren atalasea adierazten du eta erdiko balioak biztanleriaren erdia zein errentaren azpitik dagoen.

#### POBREZIA ARRISKUAREN TASA HEGO EUSKAL HERRIAN (2018)

	EAE	NAF
Gizonezkoak	16,5%	21,5%
Emakumeak	18,8%	24,6%
GUZTIRA	17,7%	23,1%
Pobrezia erlatiboaren atalasea €uro hilean (x12 hil)	895,63	969,11

\* Iturriak: Eustat eta Nastat

\*\* Nafarroa Garaiko eta EAeko datuek pobrezia kontzeptu bera erabiltzen badute ere, azpimarratzekoa da instituzio bakoitzak bere metodologia eta datuen iturri propioak dituela.

#### POBREZIA ARRISKUAN DAUDEN BIZTANLEAK (2018)

	EAE	NAF	HEH	%
Gizonezkoak	173.261	69.645	242.906	%45,5
Emakumeak	209.055	81.423	290.478	%54,5
GUZTIRA	382.316	151.068	533.384	%100,0

\* Iturriak: Eustat eta Nastat

Pobrezia arriskuaren tasa neurtzen dugunean, irizpide erlatiboa dela hartu behar dugu aintzat. Beraz, urtetik urtera, jendartearen diru-sarrerak edota diru-sarrera horien banaketak gora edo behera egin, pobrezia erlatiboaren atalasea ere aldatu egingo da. Ondorioz, pertsona bat errenta berarekin, atalaseak gora egiten duenean pobrezia arriskutik at egon daiteke, eta behera egiten duenean berriz, pobrezia arriskuan egongo da.

Pobrezia atalasetik behera bizi diren 533000 pertsona ditugu Hego Euskal Herrian, horietatik gehienak emakumeak (%54.5), eta biztanleria osoaren %17.7 EAEn eta %23.1 Nafarroa Garaian. Urtez urte errepikatzen da emakumeek pobrezia tasa altuagoak izatea.

## Eskualdeak

Baina pobrezia arriskua ez dago Hego Euskal Herri osoan modu homogeneoan banatua. Beraz, Euskal Herriko eskualde batean edo bestean bizi, pobrezian erortzeko arrisku handiagoa edo txikiagoa izan dezakegu. Hala erakusten du eskualdeka eginiko azterketa honek:

### POBREZIA ARRISKU TASA EAEN (2018)

Araba	16,7%
Gipuzkoa	13,6%
Bizkaia	20,6%
EAE	17,7%
Gasteiz	17,8%
Aiara	10,1%
Eskualdea	12,7%
Bilbo	24,5%
Ezkerraldea	24,0%
Bizkaia-itsasertza	15,2%
Durungaldea	15,1%
Donostialdea	14,7%
Tolosa-Goierrri	11,4%
Deba Goiena	7,3%
Deba Barrena	17,0%

\* Iturriak: Eustat eta Nastat

Pobrezia metropolietan pilatzeko joera duela ikus dezakegu, Bilbo Handian eta Ezkerraldean izanik zabalkunde handiena.

Arabari dagokionez, Gasteizen pilatzen da pobrezia eta Gipuzkoan Donostialdea da pobrezia arrisku tasa altuena duen eskualdea.

### POBREZIA ARRISKU TASA NAFARROA GARAIA (2018)

	Guztira	Gizonezkoak	Emakumeak
Tuterako Erribera	32,1	30,8	33,4
Ebroko Erribera	30,6	29,3	31,8
Arga eta Aragoiko Erribera	29,5	27,9	31,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>23,1</b>	<b>21,5</b>	<b>24,6</b>
Lizarra	21,7	20,2	23,3
Tafalla-Olite	21,6	19,4	23,9
Pirinioak	21,1	18,8	23,8
Nafarroa erdialdea	20,9	19,3	22,4
Zangotza	19,8	17,2	22,5
Baztan-Bidasoa	18,5	17,0	20,2
Nafarroako Ipar-Ekialdea	17,7	15,7	19,9

\* Iturriak: Eustat eta Nastat

Pobrezia metropolietan pilatzeko joera Nafarroa Garaian aldatu egiten da, Ebro arroan nabarmenki pilatuz.

## Pobrezia eta gizarte bazterketaren arrisku tasa. 2008tik aurrerako bilakaera eta konparaketa

EAE eta Nafarroa Garaiko pobrezia eta gizarte bazterketaren arriskuaren tasaren bilakaera Europako beste herrialde batzuenarekin alderatu dugu. Kontuan izan behar dugu, pobrezia eta gizarte bazterketaren arrisku tasa (AROE ingelesezko siglengatik) pobrezia bikoiztatutako arrisku tasa baino zabalagoa dela. Bazterketari eta Garapen sozialari buruzko FOESSAren 2018ko EAEko eta Nafarroa Garaiko txostenak honako datuak ematen dizkigu:

### BAZTERKETA ETA POBREZIA HEGO EUSKAL HERRIAN (2018)

	Bazterketa jasaten dutenetatik, pobrezia ere jasaten duten pertsonak	Bazterketa jasaten dutenetatik pobrezian bizi ez direnak	Bazterketa jasaten ez duen biztanleriaren artean pobrezian bizi dena
EAE	%49,2	%50,8	%7,3
NAFARROA GARAIA	%41,9	%57,9	%9,1

Iturria: FOESSA 2018ko Nafarroa Garaiko eta EAEko Bazterketa eta Garapen sozialari buruzko txostenak

Datu hauen arabera, ikuspegi monetariotik badago pobrezian bizi den biztanleria eta bazterketarik jasaten ez duena, eta kontrara, baztertuta den biztanleriaren artean, gehiago dira ikuspegi monetario batetik pobrezian bizi ez direnak pobrezian bizi direnak baino.

Europako hainbat herrialderen arteko konparaketa egin dugun pobrezia eta gizarte bazterketaren arrisku tasa alderatuz:

### POBREZIA ETA GIZARTE BAZTERKETAREN ARRISKU TASA EUROPAN (2018)

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Nafarroa Garaia					21.0	22.3	24.2	23.2	22.6	21.7	21.3
EAE	17.9	17.3	19.3	20.4	19.9	:	22.7	:	20.6	:	20.7
Europar Batasuna 28	:	:	23.8	24.3	24.8	24.6	24.4	23.8	23.5	22.4	21.7
Estatu Espainola	23.8	24.7	26.1	26.7	27.2	27.3	29.2	28.6	27.9	26.6	26.1
Estatu Frantsesa	18.5	18.5	19.2	19.3	19.1	18.1	18.5	17.7	18.2	17.0	17.4
Herbeherak	14.9	15.1	15.1	15.7	15.0	15.9	16.5	16.4	16.7	17.0	16.7
Txekiar Errepublika	15.3	14.0	14.4	15.3	15.4	14.6	14.8	14.0	13.3	12.2	12.2
Errumania	44.2	43.0	41.5	40.9	43.2	41.9	40.3	37.4	38.8	35.7	32.5

Iturriak: Eustat, Nastat eta Eurostat. Datuak ez dira konparagarriak ehuneko ehunean, baina estimazio bat egiteko balio digute.

EAE 2008 eta 2014 urteen artean pobrezia eta bazterketa arriskuaren tasa nabarmen igo dela ikus dezakegu, 2014tik aurrera beheranzko joera izanik. Dena den, 2018an oraindik 2008ko tasa baino pobrezia eta bazterketa arrisku handiagoa genuen.

Nafarroa Garaian eskuratu ditugun lehen datuak 2012koak izanik, EAEko joera bera nabarmentzen da, 2014an goia jo ondoren beherantz egin du pobrezia eta bazterketa arriskuak.

## Biztanleen batez besteko errenta

Pobrezia eta prekarietatea neurtzeko bide gisa Hego Euskal Herriko biztanleen batez besteko errenta adinaren, jatorriaren eta eskualdearen arabera aztertuko dugu jarraian.

Oraingoan ere, datu nazionalak eskuratzeko zailtasunaz gain, Hego Euskal Herrikoak ere eskuratu ezinik geratu gara. EAEkoak soilik aztertu ahal izan ditugu, datu interesgarriak eskaintzen dizkigutelakoan.

**Batez besteko errenta adinaren arabera EAEn. 2017.**

Oraingoan ere, tamalez, azken datuak 2017koak dira. Hala ere, batez besteko errentaren azken hamarkadako bilakaera erakusten digu adin eta generoaren arabera, urtez urte aldatzen ez den egiturazko joera bat erakutsiz.

**BATEZ BESTEKO ERRENTA ADINAREN ARABERA EAEN (2017)**

	Guztira	2009/2017	Emakumeak, gizonekiko alderaketan
OROTARA	17.620	807	-8.180
18 - 19 urte	820	-207	-120
20 - 24 urte	4.370	-901	-1.220
25 - 29 urte	11.430	-1.250	-2.080
30 - 34 urte	15.480	-1.129	-3.420
35 - 39 urte	18.300	550	-5.400
40 - 44 urte	20.280	1.599	-7.100
45 - 49 urte	20.730	623	-8.230
50 - 54 urte	21.620	337	-9.560
55 - 59 urte	21.990	93	-10.420
60 - 64 urte	21.680	1.885	-12.040
65 - 69 urte	19.460	1.552	-13.980
70 - 74 urte	17.160	1.935	-13.330
75 - 79 urte	16.000	1.159	-11.890
80 - 84 urte	15.010	421	-9.290
85 - 89 urte	14.980	696	-7.370
90 - 94 urte	14.110	387	-5.460
95 urte eta +	12.720	165	-4.30

Iturria: Eustat. Pertsonen eta familien estatistika. Gaindegia

Azken hamarkadako datuen konparaketa eginda ondorioak hauek dira:

- Errenta apalenak gazteen eta helduenen artean ditugu.
- Azken hamarkadan gazteen erosahaltenak nabarmen egin du behera, gazteen eta gainerako errentaren arrakala handituz.
- Emakumeek adin tarte guztietan dute errenta baxuagoa da.

Batez besteko errenta eskualdeka. EAE. 2018.

BATEZ BESTEKO ERRENTA EUSKAL A.E, 2018

	25. pertzentzila	50. pertzentzila	75. pertzentzila	99. pertzentzila
EUSKAL A.E	430	1.360	2.500	8.100
Errioxa Arabarra	310	1.070	2.010	6.690
Bilbo Handia	330	1.250	2.410	8.470
Enkartzioak	340	1.120	2.140	6.420
Bidasoa Beherea	350	1.250	2.300	7.430
Kantauri Arabarra	390	1.330	2.430	6.490
Arabako Ibarak	420	1.280	2.260	7.080
Plentzia-Mungia	440	1.490	2.880	9.630
Gernika-Bermeo	480	1.280	2.420	7.580
Arratia Nerbioi	480	1.420	2.580	6.680
Durangaldea	480	1.470	2.590	7.310
Goierri	480	1.580	2.790	7.130
Arabako Lautada	500	1.410	2.470	7.430
Markina-Ondarroa	510	1.310	2.370	6.730
Donostialdea	510	1.450	2.570	8.940
Deba Beherea	540	1.490	2.560	7.670
Urola-Kostaldea	540	1.530	2.640	8.210
Tolosaldea	620	1.530	2.610	7.040
Arabako Mendialdea	710	1.290	2.160	6.310
Gorbeia Inguruak	710	1.630	2.760	9.030
Debagoiena	720	1.760	2.780	7.150

Hilean (12 hilab.) euro/pertsonako.  
Iturria: EUSTAT. Pertsonen eta familien estatistika. Gaindegia.

Lehen esan bezala, eskualde batean edo bestean bizi pobrezian bizitzeko arrisku handiagoa dugu.

Eustatek publiko egiten dituen EAEko pertsona eta familia-errentaren estatistikak lagungarri zaizkigu errenta dezil apalenak dituzten herritarrak eskualdeka kokatzeko, baita altuenak dituztenak ere.


Errenta pertzentil desberdinen batez besteko errenta zein den azaltzen digu taula honek. Eskualdez eskualde errentaren batez bestekoa nabarmen aldatzen da.

Azpimarratzekoak ditugu Errioxa Arabarra, Bilbo Handia, Enkartzioak edota Bidasoa Behea, errenta pertzentil baxuena oso apala baitugu bertan. Errenta oso handiko herritarren presentzia, berriz, Plentzia-Mungian (arrakala nabaria da eskualde honetan), Gorbeialdea, Donostialdea edota Bilbo Handia (hemen ere errenta altuen eta baxuen arteko arrakala da azpimarratzekoa) ditugu.

Errentako lehen dezilean diren herritarrak, jatorriaren arabera ehunekotan. EAE. 2017


Pobrezia arriskua pertsona bizi den herrialde edo eskualdearen arabera, adinaren arabera edota sexuaren arabera aldatzen da. Ez dira ordea pobrezia arriskua izateko aldagai bakarrak. Orain arte aztertu ez dugun jatorria funtsezko elementua da Hego Euskal Herrian pobrezia aztertzekeo garaian. Izan ere, errentaren lehen dezilean dauden herritarren jatorriari erreparatuz, nabaria da Euskal Herrikanpo jaio diren herritarrek jasaten dutela egoera sozioekonomiko prekarioena.

ERRENTAKO LEHEN DEZILEAN DIREN HERRITARRAK, NAZIONALITATEAREN ARABERA (%). EUSKAL A.E, 2017




## Gabezia materiala duten pertsonak. Hego Euskal Herria

### GABEZIA MATERIALA DUTEN PERTSONAK (%) HEGO EH



EREMU HONETAKO ADIERAZLE BAKOITZARENTZAT GRAFIKO PROPIOA SORTU DUGU BILAKAERA MODU ARGIAGOAN BEHATU AHAL IZATEKO

#### ATZERAPENAK ETXEBIZITZA NAGUSIKO GASTUEN ORDAINKETAN



#### EZIN ETXEBIZITZA TEMPERATURA EGOKIAN MANTENDU



#### EZIN ORDENAGAILU PERTSONALIK EDUKI



#### EZIN AUTOMOBILIK EDUKI



#### EZIN HARAGI, OILASKO EDO ARRAINA JAN GUTXIENEZ BI EGUNEZ BEHIN



31

Pobreziaren aurpegi desberdinak behatu ahal izateko, Hego Euskal Herrian gabezia materiala duten pertsonen zenbatekoa ekarri dugu. Oraingoan ere azken datuei erreparatu beharko diegu, 2018koei hain zuzen ere.

Hego Euskal Herriko herritarren %18.3ak ezin du urtean gutxienez astebetez oporretara joan, eta %20.9ak ezin die ustekabeko gastuei aurre egin.

Arreta berezia, ordea, behar oinarritzkoagoak ase ezin dituzten herritarrengan jarriko dugu. Etxebizitza nagusiko gastuen ordainketan atzerapenak %6.3k ditu; modu berean, herritarren %6.3k etxebizitza ezin du temperatura egokian mantendu eta %4.7k ezin du ordenagailu pertsonalik izan. Oinarritzkoak diren behar hauek ase ezin ditzakeen herritar multzo hau 2009 urtean baino handiagoa da.

## ABERASTASUNAREN BANAKETA

Herrialde bateko aberastasuna neurtzeko Barne Produktu Gordina (BPG) bezalako adierazleak erabiltzen badira ere, adierazle horiek ez dute inolaz ere herrialde horretako biztanleriaren ongizatea neurtzen. Herrialde batek aberastasun handia sortzen badu ere, aberastasun horren banaketa nola egiten den behatu beharreko elementua izango da bertako biztanleriaren errealitatera hurbilpen bat egin ahal izateko.

Aberastasunaren banaketa neurtzeko erabiltzen diren Gini indizea eta S80/S20 ratioa ekarri ditugu azterketa honetara. Baita Barne Produktu Gordinean soldatek duten pisuaren bilakaera. BPG ez da adierazle egokia jendartearen ongizate-maila neurtzeko inolaz ere, baina bere osaketan soldatek duten portzentaiak aberastasunaren banaketa egiteko moduaren inguruko informazio osagarria ematen digu.

2018koak dira azken datuak, beraz, pandemiak aberastasunaren banaketan izan duen eragina neurtzea ezinezko suertatu zaigu.

### Gini indizea

Gini indizea herrialde batean errentaren banaketan dauden desberdintasunak neurtzeko erabiltzen da. Horretarako, errentaren kontzentrazio maila neurtzen du. 0 neurriak errentaren banaketa uniformea dela adieraziko luke eta 100 neurriak talde batek soilik herrialde osoko errenta guztia pilatzen duela.

EAE eta Nafarroa Garaiko Gini indizeak ez dira konparagarriak euren artean, erakunde desberdinek eginiko kalkuluak baitira eta emaitzetan aldeak egon baitaitezke.

Dena den, indizeak beraiek bata bestearekin konparagarriak ez badira ere, EAEn eta Nafarroa Garaian joera desberdin bat ematen dela ikus dezakegu.

### EAE

EAEn azken hamarkadan Gini indizeak gorantz egin duela ikus dezakegu (2014an goia joz). Horrek errentaren banaketan dauden desberdintasunak areagotu egin direla erakusten digu.

#### GINI INDIZEA EAEN

Urtea	Gini indizea
2008	25.2
2012	25.3
2014	27.1
2016	25.8
2018	26.7

Iturria: EAEko Pobrezia eta gizarte-ezberdintasunen inkesta 2008-2016  
EAEko Gizarte Zerbitzuen Eskariari buruzko Estatistika (Gizarte Beharren Inkesta) 2014-2018

### Nafarroa Garaia

Nafarroa Garaian ordea joera bestelakoa da.

Nafarroako Errealitate Sozialaren Behatokiak 2019an argitaraturiko "III Nafarroan pobrezia eta gizarte ezberdintasunak" txostenean jasotzen diren eta Nastat-ek, Nafarroako Estatistika Erakundeak, publiko egiten dituen zenbakiak ez datoz bat.

Lehenaren arabera, Gini indizeak beherantz egin du, errentaren banaketan dauden desberdintasunak gutxiagotuz.

Nastat-en datuen arabera beheranzko joera hori ez da hain garbia. 2013 ondoren gorantz egin eta gero 2017 eta 2018an balore baxuagoetan kokatzen da indizea.



## GINI INDIZEA NAFARROA GARAIAN

URTEA	GINI INDIZEA	
	*	**
2010	29.9	-
2011	30.3	-
2012	28.3	-
2013	28.1	30.42
2014	26.2	32.64
2015	27.7	30.75
2016	26.5	31.61
2017	24.7	28.13
2018	-	29.9

Iturriak: \*Nafarroako Errealitate Sozialaren Behatokiaren "III Nafarroan pobrezia eta gizarte ezberdintasunak" txostena

\*\*Nastat Nafarroako Estatistika Erakundea

## S80/S20 ratioa

Desberdintasuna aztertzeko erabiltzen den beste adierazle bat S80/S20 ratioa da. Errenta altuena duen biztanleriaren %20k lortutako batez besteko errentaren eta errenta baxuena duen biztanleriaren %20k lortutakoaren arteko erlazioa islatzen du.

Adierazle hau erabiltzea interesgarria da, izan ere, Gini indizea asko aldatzen da errentaren banaketaren erdialdean mugimenduak egon badira, eta S80/S20 ratioak bi muturren arteko erlazioa zein den neurtzen digu.

Adierazle hau aztertzeko garaian ere, Gini indizearekin bezala, erakunde desberdinek publiko eginiko datuetan emaitza ezberdinak topatu ditugu. Dena den, oraingoan, datu konparagarriak eskuratu ahal izan ditugu eta horiek ekarri ditugu azterketa honetara.

## S80/S20 RATIOA

	Nafarroa Garaia	EAE	EB	Estatu Frantsesa	Estatu Espainola	Txekiar Errepublika	Eslovenia	Lituania
2018	4.10	5.10	5.00	4.23	6.00	3.32	3.38	7.09
2017	4.40	5.10	4.90	4.31	6.60	3.40	3.42	7.28
2016	4.60	5.00	4.90	4.32	6.60	3.50	3.56	7.06
2015	4.80	5.40	5.00	4.29	6.90	3.51	3.60	7.46
2014	4.90	5.20	5.00	4.27	6.80	3.50	3.70	6.10
2013	4.50	5.20	5.00	4.48	6.30	3.40	3.60	6.05
2012	4.80	6.50	5.20	4.54	6.50	3.49	3.44	5.32
2011	4.70	6.30	5.20	4.61	6.30	3.54	3.46	5.84
2010	5.30	6.10	5.20	4.43	6.20	3.47	3.42	7.35
2009	4.70	5.20	5.10	-	5.90	-	-	-
2008	4.20	4.80	-	-	5.60	-	-	-

Iturriak: Estatu Espainoleko Estatistika Institutu Nazionala (INE) (Bizi Baldintzen inguruko Inkesta). Eurostat

EAEri dagokionez, 2008aren ondorengo krisiaren urte gogorrenetan errenta altuenera eta baxuenen arteko aldea handitu egin da nabarmen, izan ere, 2008tik igoera nabaria izan du 2012 urte arte, ondoren jaisten hasiz. Dena den, 2018. urtean errenta altuenek baxuenek baino 5 aldiz errenta altuagoa zeukaten.

Nafarroa Garaian ere 10 urtetan igoera eta jaitsiera izan dugu, mugimendu hau leunagoa izan bada ere. Datu honen arabera, EAEn baino hobeto kokatuta dago Nafarroa Garaia errenten bi muturren arteko aldea behatzen badugu, baina hala ere errenta altuenek 4 aldiz gehiago jasotzen jarraitzen zuten 2018an baxuenekin alderatuz.


Europar Batasunarekin alderatuz EAEn desberdintasunak goitik daude, behetik Nafarroa Garaian, eta bi kasuetan desberdintasun gutxien dauden herrialdeetatik urrun.

### BPG eta soldatak

Ekonomian soldatek daukaten pisua galtzen ari da urtez urte Hego Euskal Herri osoan, izan ere, Barne Produktu Gordinean soldatek daukaten ehunekoa gutxituz doa, azken hamarkadan izan duten jaitsieraren ispilu.

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
NAFARROA GARAIA	49,37 %	49,21 %	48,53 %	47,05 %	45,86 %	45,49 %	45,05 %	45,14 %	44,96 %	45,18 %
EAE	49,95 %	49,61 %	48,95 %	47,82 %	47,09 %	46,51 %	46,36 %	46,00 %	45,80 %	45,81 %

Iturria: Espainiako Estadistika Institutua (INE)



## ETXEBIZITZA

Euskal Herriko langileriaren lan eta bizi baldintzak aztertzeko garaian ezinbestekoa zaigu etxebizitza eskubidea aztertzea. Biztanleriaren ongizatea neurtzeko gailu ezinbestekoa, etxebizitza izateak edo ez, soldataren zenbateko zatia bideratzen den etxebizitzara edo etxebizitzaren nolakotasunak pertsonon bizi baldintzetan izugarritzko eragina baitaika.

### 2020an osasun krisiaren ondoriozko konfinamenduak hainbat hutsune agerian

2020ko Martxoan osasun krisiaren ondorioz ezarri ziguten konfinamenduak, etxebizitzaren inguruko hainbat hutsune ikusarazi zituen.

Etxegabekoen errealitatea alde batetik. Etxebizitza eskubidea hain modu garratzean urratua duten biztanlea izanda, etxetik irteteko debekuak betetzea ezinezkoa zen baldintza inposatu zien. Behin-behineko irtenbide inprobisatuek ere ezin izan zuten errealitate hau ezkutatu.

Bestetik, etxebizitza batean bizi direnen arteko desberdintasun sozialak utzi zituen agerian. Etxebizitzaren tamaina, argia, kanpo espazioa, prestazioak (berogailua, internet...)... erabakigarriak izan ziren egoera zail hori aurrera eramateko moduan, etxebizitza askoren eta bertan bizi diren pertsonen egoera prekariora agerian geratuz.

Txanponaren beste aldean, ohiko etxebizitza utzi eta konfinamendua euren bigarren etxebizitzan egiten saiatu ziren biztanleen berriak izan genituen. Etxebizitza, izan ere, arrakala sozialen erakusleihu gardena dugu. 2019ko Espainiako Estatistika Institutu Nazionalaren (INE) datuen arabera, Nafarroa Garaiko etxebizitzaren parke osotik %17,63 eta EAEko etxebizitzaren %12,52 bigarren etxebizitza moduan sailkatua dago.

### Etxebizitza eskubide subjektibo

Etxebizitza duinerako eskubidea Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean jasota dago, baita Eskubide Sozial, Ekonomiko eta Kulturalen Nazioarteko Itunean ere.

Etxebizitza duin baterako eskubidea izateak pertsonon ongizate maila hobea izatea dakar. Baina Euskal Herrian etxebizitza duin baterako sarbidea mugatua da, alokairu eta etxebizitzaren prezioak euren balioen oso goitik kokatzen baitira, eta ondorioz soldataren zati garrantzitsua etxebizitzara bideratu behar izaten du biztanleriaren zati handi batek.

Hala ere, Euskal Herrian etxebizitza duinerako eskubidea, eskubide subjektibo gisa jaso dago.

Iparraldean 2008. urtean Frantziar DALO legea indarrean sartu ondoren. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan 2015ean onartu zuen Eusko Legebiltzarrak etxebizitza eskubide subjektibo gisa, eta Nafarroa Garaian 2018an argitaratu zen eskubide hori onartzen zuen legea 2019an sartuz indarrean.

Urrats garrantzitsua da administrazioek etxebizitza eskubide subjektibo gisa onartzea, izan ere, honako ondorioa dakar: administrazioek ezarritako baldintzak betetzen dituzten herritarrek auzitegietara jotzeko aukera dute eskubidea berma diezaioten eskatzeko. Nolanahi ere, etxebizitzaren parke publiko nahikorik ez dagoenez, administrazioek ezin badute aipatu eskubidea bermatu, diru-laguntza emateko betebeharrak izango dute. Beraz, kasu askotan, etxebizitza eskubide bermatu beharrean alokairua ordaindu ahal izateko laguntza ekonomikora mugatu da eskubide honen onarpena.

Etxebizitza eskubide subjektibo gisa onartu denetik, etxebizitzaren sarbidean dauden zailtasunek berdintsu jarraitzen dutela esan dezakegu.

## Etxebizitza parkea

### Euskal Herria

Etxebizitza parkea aztertzerako garaian, datu falta topatu dugu oro har eta datuak izan arren hauek zaharkituak ziren kasu gehienetan.

Edonola ere, Gaindegiaj eskaintzen dizkigun Euskal Herri osoko datu batzuk ekarri ditugu hona:

Lurraldea	Etxebizitza parkea	Bigarren mailako erabilera duten etxebizitzak	Etxebizitza hutsak	Etxebizitza parkea	Erabilera iraunkorra ez duten etxebizitzak	Etxebizitza parkea	Etxebizitza dentsitatea (mila biztanleko)
	2011	2011	2011	2016	2016	2018	2018
EUSKAL HERRIA	1.526.378	108.742	163.409	1.552.696	270.724	1.576.707	500,2
Araba	156.273	8.064	18.039	163.945	27.919	166.965	504,9
Gipuzkoa	332.835	13.920	42.508	341.620	51.524	343.487	476,7
Nafarroa Garaia	308.600	24.540	35.465	308.600	60.005	320.938	495,6
Bizkaia	529.686	20.131	55.610	542.716	78.080	546.333	475,1
Lapurdi	173.181	38.607	9.296	170.319	47.377	173.181	674,2
Nafarroa Beherea	17.221	2.300	1.685	16.959	3.863	17.221	541,8
Zuberoa	8.582	1.180	805	8.536	1.956	8.582	580,6

Iturria: Gaindegia

Etxebizitza hutsen zenbatekoaren azken datuak 2011koak dira, baina erabilera iraunkorra ez duten etxebizitzak (hutsak eta bigarren etxebizitzak) 2016koak. Datu zaharkituak izan arren, interesgarria da herrialdez herrialde aztertzea, 2011tik 2016ra datuak aldatu arren joera mantendu egiten baita:

Lurraldea	Etxebizitza parkea	Erabilera iraunkorra ez duten etxebizitzak	Erabilera iraunkorra ez duten etxebizitzak	Bigarren etxebizitzak	Etxe hutsak ehunekotan
	2016	2016	Ehunekotan	2011	2011
EUSKAL HERRIA	1.552.696	270.724	17,44 %	7,12 %	10,71 %
Araba	163.945	27.919	17,03 %	5,16 %	11,54 %
Gipuzkoa	341.620	51.524	15,08 %	4,18 %	12,77 %
Nafarroa Garaia	308.600	60.005	19,44 %	7,95 %	11,49 %
Bizkaia	542.716	78.080	14,39 %	3,80 %	10,50 %
Lapurdi	170.319	47.377	27,82 %	22,29 %	5,37 %
Nafarroa Beherea	16.959	3.863	22,78 %	13,36 %	9,78 %
Zuberoa	8.536	1.956	22,91 %	13,75 %	9,38 %

Iturria: Gaindegia

2016ko datuak ikusirik Iparraldean erabilera iraunkorra ez duten etxebizitzak ehunekoa Hegoaldekoa baino nabarmen altuagoa dela ikus dezakegu. Hegoaldean Nafarroa Garaia du portzentaia altuena.

2011ko datuek ordea informazio osatuago bat ematen digute. Izan ere, Iparraldean bigarren etxebizitzak etxe hutsak baino nabarmen gehiago dira, Lapurdi izanik bigarren etxebizitza gehien metatzen duen herrialdea, ezarri den turismo ereduaren ondorioz argiki. Hegoaldean ordea etxe hutsak dira bigarren etxebizitza baino gehiago.

### Nafarroa Garaia

Nafarroa Garaian Eskubide Sozialetako Departamentuak zein Nafarroa Garaiko Estatistika Erakundeak publiko egiten

dituzten datuei esker, beste herrialdeetan egin ezin izan dugun azterketa sakonagoa egin ahal izan dugu etxebizitza parkeari dagokionean.

Etxe hutsen zenbatekoa neurtzea zaila da Nafarroa Garaiko Etxebizitza Hutsen Erregistroa martxan jarri arte, baina Nafarroako Gobernuaren Eskubide Sozialetako Departamentuak 2018an publiko eginiko datuen arabera, 35465 etxe huts zeuden Nafarroa Garaian, etxebizitza parke osoaren %11,49.

Nafarroako Estatistika Erakundea den Nastat-ek publiko egiten dituen datuek, ohiko etxebizitza eta besteen artean egiten du bereizketa, hots, etxe huts eta bigarren etxebizitzak elkarrekin daude multzokaturik.

### NAFARROA GARAICO ETXEBIZITZA PARKEA

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Guztira	258.629	309.365	312.247	314.584	316.348	317.332	318.225	319.474	320.938	322.758
Ohiko etxebizitzak	196.915	237.439	238.745	240.277	241.412	242.461	243.968	245.652	247.900	250.066
%	76,14 %	76,75 %	76,46 %	76,38 %	76,31 %	76,41 %	76,67 %	76,89 %	77,24 %	77,48 %
Bigarrenak edo hutsak	61.714	71.926	73.502	74307	74.936	74.871	74.257	73.822	73.038	72.692
%	23,86 %	23,25 %	23,54 %	23,62 %	23,69 %	23,59 %	23,33 %	23,11 %	22,76 %	22,52 %

Iturria: Nafarroako Estatistika Erakundea (Nastat)

### Etxebizitza babestua

Nafarroa Garaiko etxebizitza parke babestuak 56365 etxebizitza ditu, etxebizitza parke osoaren %17,5a. Gainera, horietatik %53,4ak soilik du prezio mugatua.

	Etxebizitza babestu guztiak		Prezioan mugak dituzten etxebizitzak	
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
Libreak, babes erregimena amaitzen da	6.776	12,0%	0	0,0%
Babestuak, baina salmenta prezio librearekin (20 urte baino gehiago pasa dira)	17.152	30,4%	0	0,0%
Babestuak, baina salmenta prezio librerik gabe (ez dira pasa 20 urte baino gehiago)	6.141	10,9%	6.141	20,4%
Babes Ofizialeko Etxebizitzak, erosketan (30 urteko erregimena)	12.824	22,8%	12.824	42,6%
Tasaturiko Etxebizitza Babestuak, erosketan (30 urteko erregimena)	5.846	10,4%	5.846	19,4%
Tasaturiko Etxebizitza Babestuak, libreak	2.318	4,1%	0	0,0%
Alokairuan	4.926	8,7%	4.926	16,4%
Hitzarturiko Prezioko Etxebizitzak	382	0,7%	382	1,3%
Guztira	56.365	100,00 %	30.119	100,0%

Iturria: Etxebizitza zerbitzua, Eskubide Sozialen Departamentua, Nafarroako Gobernua.

Alokairuari dagokionez, etxebizitza babestuaren %8,7a soilik da alokairuzkoa. Datu honek ez du bat egiten etxebizitza babestuen eskaerarekin, izan ere, Nafarroa Garaian 2018an eginiko etxebizitza babestuaren eskaera guztien %73,6 alokairuzkoa soilik zen, %11,3 erosketa bidezkoa eta %15,1 alokairu zein erosketa bidezkoa.

Hala ere, alokairuzkoa den etxebizitza babestuaren parkea zertxobait igo dezake alokairu-poltsa izenez ezagutzen dugunak. Honek, erabilitako etxebizitza hutsak etxebizitza-parke publikoan prezio babestuan sartzeko aukera ematen du. 2018an 619 etxebizitza zeuden modalitate honen barruan.

Bestalde, 2018an etxebizitza babestuaren eskatzaile diren pertsonen artean emakumeak dira gehiengo, %52,3 erosketa bidezkoan eta %57,7 alokairu bidezkoan.


### Desorekak etxebizitza babestuaren eskaera eta eskaintzaren artean

Honako datuek etxebizitza babestuaren eskaintza eskaera asetzetik urrun dagoela erakusten digute. Alokairu babestuaren ehunekoak dira larrienak, erosketa bidezkoarena baino eskaera kopuru handiagoarekin eskaintza oso urria baitute.

Oraindik ere, administrazio publikoek euren errekurtsioak jabetzara bideratzen dituzte, etxebizitza eskubidea bermatzetik urrun. Gainera, Nafarroa Garaian 2020 arte, etxebizitza babestu bat jabetzan lortu eta 20 urtera mugarik gabeko prezioan saldu zitekeen. Orain esleitzen diren etxebizitza babestuek ordea iraunaldi mugagabea izango dute, baina arau hau ez da atzera-eragintasunez aplikatuko, beraz, orain arte esleitu diren etxebizitza babestu guztiak libre bilakatuko dira 20 urte ondoren. EAEn 2003an onartu zen etxebizitza babestuei iraunaldi mugagabea ezarri zitzaizen legea.

	Erosketa babestua			Alokairu babestua		
	Eskaerak	Eskaintza	%	Eskaerak	Eskaintza	%
2011	1.759	1.678	95,4%	5.720	223	3,9%
2012	964	732	75,9%	6.666	124	1,9%
2013	1.564	307	19,6%	6.457	249	3,9%
2014	1.224	382	31,2%	5.012	56	1,1%
2015	1.107	327	29,5%	4.272	160	3,7%
2016	1.140	214	18,8%	5.094	110	2,2%
2017	1.274	626	49,1%	5.961	0	0,0%
2018	2.161	273	12,6%	7.262	0	0,0%

Iturria: Etxebizitza Zerbitzua, Eskubide Sozialen Departamentua, Nafarroako Gobernua



Iturria: Etxebizitza Zerbitzua, Eskubide Sozialen Departamentua, Nafarroako Gobernua

### Alokairuak Hego Euskal Herrian

Alokairuen prezioa aztertzeak garrantzia berezia du Hego Euskal Herrian. Izan ere, etxebizitza eskuratzeko zailtasun gehien dutenen aukerarik egokiena izan ohi da alokairua, horrela jasotzen da Foessak publiko eginiko Nafarroa Garaiko eta EAeko Bazterketari eta garapen sozialari buruzko 2019ko txostenetan. Gainera, alokairuzko etxebizitza baterako sarbidea ere ez da gauza erraza, tamalez.

Gogoan izan behar dugu, 2012an Espainiako Gobernuak Hiru Alokairuen Legea aldatzearen ondorioz, hainbat putre-funtsek

Hego Euskal Herriko hiriburuetako etxebizitzaren jabetza hartu dutela, alokairuak (kasu batzuetan alokairu sozialak izanikoak) neurritz gain igoz oro har. Edonola ere, putre-funts hauek oraindik ez dute alokairuzko etxebizitza parkearen zati esanguratsurik osatzen, eta Hego Euskal Herriko alokairuen batz besteko prezioen bilakaera ez genuke honekin lotu behar.

Horri gehitu behar diogu Euskal Herriko herri eta hiri jakin batzuetan garaiko alokairuen neurri gabeko prezioek bertako herritarren etxebizitzarako sarbidea baldintzatzen dutela nabarmen. Eusko Jaurlaritzaren fidantzen gordailuaren arabera, Donostian garaiko alokairuaren zenbatekoa ohiko etxebizitzarena baino %30 handiagoa izatera irits daiteke.

## Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa

EAE-n etxebizitzaren alokairua aztertzeko hainbat iturri ditugu. Alde batetik Eustat-ek Higiezinaren eskaintzari buruzko inkestaren bidez argitaratzen dituenak, bestetik Eusko Jaurlaritzaren fidantzen gordailuaren bidez jasotzen ditugunak, eta Idealista atariak eskaintzen dizkigunak azkenik. Idealistaren datuak erakunde ofizialek erreferentzia gisa erabiltzen dituzte, merkatuan dauden alokairuen prezioen iturri sinesgarria izanik.

Nafarroa Garaian Idealista-ren datuekin soilik egin ahal izan dugu alokairuzko etxebizitzaren inguruko azterketa, beraz, datuak konparagarriak izan daitezten, EAE-ren kasuan ere iturri bera erabiltzea hobetsi dugu.

### ALOKAIRUEN PREZIOA EAE-N HILEAN


BATEZ BESTE EAE-KO HERRITARREK HILEAN ALOKAIRURA BIDERATZEN DUTEN SOLDATA GARBIAREN EHUNEKOAK

Urtea*	€/m <sup>2</sup>	80 m <sup>2</sup> -ko etxebizitza bateko batez besteko alokairua hilean	Orokorra	Emakumeak	Gizonak
2011	11,2	896,0	51,19 %	58,66 %	46,35 %
2012	10,3	824,0	46,78 %	54,27 %	42,33 %
2013	9,9	792,0	44,33 %	51,31 %	40,38 %
2014	9,9	792,0	43,49 %	49,55 %	39,14 %
2015	9,8	784,0	43,39 %	49,56 %	38,97 %
2016	10,3	824,0	45,75 %	52,33 %	41,08 %
2017	10,9	872,0	47,17 %	53,69 %	42,62 %
2018	11,3	904,0	48,45 %	54,33 %	43,70 %
2019	11,9	952,0	-	-	-
2020	12,1	968,0	-	-	-

\* Abenduko datuak dira, 2020 urtekoak izan ezik. Abuztukoak dira datuak.

Iturria: Geuk egina Idealistaren eta Espainiako Estadistika Institutu Nazionalaren (INE) datuekin

### EAE-N ALOKAIRURA BIDERATURIKO SOLDATA GARBIAREN EHUNEKOAK



Iturria: Geuk egina Idealistaren eta Espainiako Estadistika Institutu Nazionalaren (INE) datuekin

Alokairuen prezioa altua edo baxua den neurtu ahal izateko, soldaten batez bestekoarekin egin dugu alderaketa, soldata bakarra jasotzen duen bizi-unitatea hartuz kontuan.

2011an soldata garbiaren ehuneko altuagoa bideratzen bazen etxebizitzara 2018an baino, 2015 arte beherazko joera izatetik berriz goranzko joeran gaude 2018 arte behinik behin.

Gazteen Euskal Behatokiak publiko eginiko "etxebizitza emanzipazio-kostua Euskadin" txostenean, gehienezko prezio onargarria honela definitzen du: zein prezio izan beharko lukeen merkatu libreko etxebizitza batek, hipoteka kuotaren eta alokairu-errentaren lehen hilerokoa gehienez hileko soldata garbiaren %30 izan dadin.

EAEko herritarrak gehienezko prezio onargarritik urrun daude, are gehiago emakumeak, soldataren erdia baino gehiago bideratzen baitute alokairura.

### Nafarroa Garaia

Nafarroa Garaian ere Idealista atariak eskaintzen dizkigun datuak erabili ditugu. Datu hauek Idealistaren bidez alokatzen diren etxebizitzaren merkatu prezioaren arabekoak dira eta Espainiako Estatistika Institutu Nazionalak (INE) soldaten egiturari buruzko inkestan publiko egiten duen soldatekin alderatu ditugu.


Soldata bakarra jasotzen duen bizi-unitatearen arabekoak dira kalkuluok.

**ALOKAIRUEN PREZIOA NAFARROA GARAIAH HILEAN**  
**BATEZ BESTE EAE-KO HERRITARREK HILEAN ALOKAIRURA BIDERATZEN DUTEN SOLDATA GARBIAREN EHUNEKOA**

Urtea*	€/m <sup>2</sup>	80 m <sup>2</sup> -ko etxebizitza bateko batez besteko alokairua hilean	Orokorra	Emakumeak	Gizonak
2011	7,3	584	35,86	42,96	31,85
2012	6,7	536	36,76	44,10	32,08
2013	6,4	512	36,68	44,32	31,83
2014	6,2	496	35,40	42,57	31,41
2015	6,3	504	35,17	41,74	31,34
2016	6,5	520	34,33	40,98	30,94
2017	6,9	552	33,67	39,19	30,31
2018	7,7	616	33,63	37,81	30,47
2019	8,5	680	-	-	-
2020	8,5	680	-	-	-

\* Abenduko datuak dira, 2020 urtekoak izan ezik. Abuztukoak dira datuok.

Iturria: Geuk egin a Idealistaren eta Espainiako Estatistika Institutu Nazionalaren (INE) datuekin





EAEEn baino soldataren ehuneko apalagoa bideratzen dute Nafarrek alokairua ordaintzeko, eta gainera, urtez urte ehunekoa jaisten ari dela ikus dezakegu.

Hala ere, Nafarroa Garaian, EAEEn bezala, emakumeak dira alokairuko etxebizitza baterako sarbidea zailagoa dutenak, euren soldataren %37,81 bideratzen baitute alokairura, gizonek baino 7 puntu gehiago.

Eusko Jaurlaritzak Gazteen Euskal Behatokiaren txostenean ezartzen duen gehienezko prezio onargarriak, aipatu dugun bezala, soldata garbiaren %30ean kokatzen du alokairuaren prezioa. Beraz, Nafarroa Garaian ere langa horren gaintik gaude alokairura bideratzen den soldataren zatiari dagokionean orokorrean. Gizonetzkoen batz bestekoa %30etik gertu dago edonola ere.

## Etxebizitza libreak

### Etxebizitza libreak


Hego Euskal Herrian salmentan dauden etxebizitza librearen tasaturiko prezioen bilakaera aztertu dugu 2011tik.

ETXEBIZITZA LIBREEN BILAKAERA. EURO/M<sup>2</sup>

	2.011	2.012	2.013	2.014	2.015	2.016	2.017	2.018	2.019	2.020
NAFARROA GARAIA	1.449,4	1.382,6	1.366,8	1.309,6	1.337,9	1.300,0	1.353,9	1.383,7	1.467,5	1.434,3
EAE	2.566,1	2.517,5	2.451,6	2.416,1	2.384,4	2.356,2	2.387,0	2.375,6	2.424,4	2.401,9
5 urte baino etxebizitza berriagoak										
NAFARROA GARAIA	1.656,6	1.702,2	1.776,3	1.555,7	1.661,8	1.537,7	1.551,5	1.611,1	1.637,6	1.637,0
EAE	2.865,5	2.900,4	2.764,4	2.692,4	2.623,4	2.762,7	2.717,8	2.624,0	2.723,2	2.747,3
5 urte baino etxebizitza zaharragoak										
NAFARROA GARAIA	1.421,4	1.351,1	1.328,7	1.290,0	1.309,6	1.282,1	1.338,7	1.368,8	1.454,0	1.420,0
EAE	2.540,4	2.493,0	2.435,9	2.399,1	2.372,2	2.335,3	2.372,8	2.366,2	2.415,4	2.392,7

Iturria: Espainiako Garraio, mugikortasun eta hiri agendako Ministerioa

Urte bukaerako balioak hartu ditugu kontutan, 2020ko datua izan ezik. Kasu honetan lehen hiruhileko datua ekarri dugu.



2008an neurrigabeko etxebizitza prezioen igoerak goia jo eta higiezinaren burbuila lehertu ostean, bai Nafarroa Garaian zein Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitza librearen prezioak behera egin zuen 2016 arte. Orduetik hona etxebizitza prezioak gora egin du, 2020an beheranzko joera izanik.

Esan bezala, 2020ko datua urteko lehen hiruhilekoa da. Konfinamenduaren ondorio gisa etxebizitzaren prezioek behera egin zuen pittin bat eskariak behera jo ostean, eta ikusteke dago joera horren bilakaera nolakoa izango den.

## Etxebizitza babestua

Babesturiko etxebizitzaren prezioa ere aztertu dugu. Merkatuko prezioetatik urrun (EAEn batik bat), gora behera gutxiago jasan ditu urtez urte.

### ETXEBIZITZA BABESTUAREN BILAKAERA. EURO/M<sup>2</sup>

	2.011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
NAFARROA GARAIA	1.264,3	1.143,5	1.127,6	1.157,2	1.176,9	1.185,3	1.171,8	1.153,7	1.140,3	1.146,9
EAE	1.199,9	1.158,2	1.123,5	1.154,7	1.158,2	1.133,9	1.152,0	1.152,1	1.153,5	1.143,2

Iturria: Espainiako Garraio, mugikortasun eta hiri agendako Ministerioa

Hegoaldeko administrazioek sustatutako etxebizitzaren %7 soilik bideratzen dira alokairura. Foessak publiko egiten dituen Nafarroa Garaiko eta EAeko Bazterketari eta garapen sozialari buruzko txostenetan agerian geratu da gizarte-bazterketako egoeran dagoen kolektiboak alokairuko etxebizitza lehenetsi beharra daukala. Beraz, Administrazio publikoek etxebizitza politikak garatzeko orduan behar handienak dituzten kolektiboak bazter uzten dituztela esan dezakegu, jabetzan saltzen diren etxebizitza sozialei emanez lehentasuna.

## Soldata eta etxebizitzaren prezioa

Hego Euskal Herriko biztanleriak zailtasun handiak ditu etxebizitza baterako sarbidea lortzeko. Hego Euskal Herriko biztanleek jabetzan dute batik bat etxebizitza, 2019an %80a zen ehuneko hau Nafarroa Garaian eta ia %85ekoa Euskal Autonomia Erkidegoan INEren arabera. Era berean, jabetza da etxebizitza baterako sarbidea gehien mugatzen duena.

Etxebizitzaren prezioen batz bestekoa eta soldaten batz bestekoaren inguruko konparaketa egin dugu. EAEn soilik egin ahal izan dugu konparaketa hau, Jaurilaritzak etxebizitzaren prezioen batz besteko prezioa publiko egiten duelako, ez horrela Nafarroako Gobernuak.

Eusko Jaurilaritzak higiezinaren eskaintzari buruzko inkestan etxebizitza libreen batez besteko prezioa publiko egiten du.

Soldata bakarrek bizi-unitate batean, hilean soldata garbiaren %30 etxebizitza ordaintzera bideratuko bagenu (etxebizitzaren prezioa bakarrik harturik kontutan, bestelako gastuak kanpoan utziz) ordaintzeko beharko genituzkeen urteak aztertu ditugu.

### ETXEBIZITZEN PREZIOAK (MILA EURO)

	Etxebizitzaren prezioak (mila euro)		Batez besteko soldata garbia	B.O. eta etxebizitza sozialak ordaintzeko batz besteko urteak	Etxebizitza librea ordaintzeko batz besteko urteak
	B.O./Sozialak	Libreak			
2008	108,1	337,2	20.348,29	17,71	55,23
2009	115,3	329,3	20.838,39	18,44	52,67
2010	110,2	318,1	21.181,88	17,34	50,05
2011	112,0	308,3	21.003,99	17,77	48,93
2012	114,5	302,2	21.135,61	18,05	47,67
2013	117,7	283,8	21.438,28	18,30	44,13
2014	127,2	266,0	21.854,14	19,40	40,58
2015	129,8	259,8	21.684,84	19,95	39,94
2016	130,4	253,5	21.613,58	20,11	39,10
2017	132,7	258,7	22.182,83	19,94	38,88
2018	135,1	270,4	22.392,39	20,11	40,26
2019	134,4	289,1			
2020	133,2	300,5			

Iturria: Eusko Jaurilaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Higiezinaren eskaintzari buruzko inkesta eta (INE) Soldata Egiturari Buruzko Inkesta

Babes soziala duten etxebizitza ordaintzeko beharko liratekeen urteak askoz ere gutxiago dira ikusten dugun bezala. Dena den, urtez urte igotzen doaz urte hauek.


Etxebizitza librea ordaintzeko batez besteko urteak jaisten joan arren, urte kopuru izugarrietan kokatzen gara. Horri bestelako gastuak (hipoteka-mailegua badagoen edo ez, zein bestelako etxebizitzaren gastu finkoak) gehituz gero urte kopurua gehiago igoko litzaiguke.

## Etxegabetzeak

Espainiako Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak etxegabetzeen inguruko datuak eskaintzen dizkigu, jabetzaren zein alokairuaren ingurukoak. Datu hauek agindu judicial baten bidez behartzen diren etxegabetzeetara mugatzen dira.

Beraz, datu ofizial hauek ez dira errealitatearen isla, ez baititu modu isilean jazotzen diren etxegabetzeak jasotzen. Alokairu kontratua amaitu eta berritzearen igoerak ordaindu ezin dituztelako euren etxebizitza utzi beharrean izan diren familia horiek guztiak, kanpo geratzen dira. Bai eta beste edozein arrazoigatik euren etxebizitza agindu judiciala iritsi aurretik uzten dutenak etxebizitzaren ordainketari aurre egin ezinik.

Etxebizitza askok euren etxegabetzea geldirik daukate, hipoteka-exekuzioen luzamenduari esker (2012tik indarrean) eta baita epemuga aurreratuagatik gehiegizko klausulari buruzko ebazpenaren zain daudelako ere. Horrek, etxegabetze kasuak gehiago ez igotzea eragiten du zorionez, baina hala ere, estatistika hauetan azaltzen ez diren milaka familia behin-behineko egoera zailean daudela gogorarazten digu.



## ETXEGABETZEAK HEGO EUSKAL HERRIAN

		NAFARROA GARAIA	EAE	HEGO EH
2013	Hipoteka betearazpenen ondorioz	98	273	371
	Hiri arrendamenduen legearen ondorioz	274	813	1.087
	Besterik	18	65	83
	DENERA	390	1.151	1.541
2014	Hipoteka betearazpenen ondorioz	144	231	375
	Hiri arrendamenduen legearen ondorioz	230	726	956
	Besterik	10	129	139
	DENERA	384	1086	1470
2015	Hipoteka betearazpenen ondorioz	191	268	459
	Hiri arrendamenduen legearen ondorioz	240	748	988
	Besterik	11	131	142
	DENERA	442	1.147	1.589
2016	Hipoteka betearazpenen ondorioz	167	256	423
	Hiri arrendamenduen legearen ondorioz	237	834	1.071
	Besterik	12	113	125
	DENERA	416	1.203	1.619
2017	Hipoteka betearazpenen ondorioz	154	249	403
	Hiri arrendamenduen legearen ondorioz	254	834	1.088
	Besterik	7	113	120
	DENERA	415	1.196	1.611
2018	Hipoteka betearazpenen ondorioz	97	235	332
	Hiri arrendamenduen legearen ondorioz	255	847	1102
	Besterik	25	109	134
	DENERA	377	1.191	1.568
2019	Hipoteka betearazpenen ondorioz	57	165	222
	Hiri arrendamenduen legearen ondorioz	262	806	1.068
	Besterik	10	72	82
	DENERA	329	1.043	1.372

Iturria: Botere Judzialaren Kontseilu Nagusia

2016ko Hego Euskal Herriko etxebizitza parkearen datuak kontuan izanik, 1000 etxebizitzatik 1,2 izan zen etxegabetua urte horretan bide judiziala erabiliz. Azpimarratzekoa da alokairuan dauden etxebizitzaren etxegabetzeak direla nagusi, eta azken urteetan etxegabetzeen gutxitze bat egonik, alokairu bidezko etxebizitzaren etxegabetzeen jaitsiera askoz ere modu leunagoan eman dela.







